

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ZUZENBIDE
FAKULTATEA
FACULTAD
DE DERECHO



GRADU AMAIERAKO LANA

JSKJ-aren bidez

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre
egiteko politika publikoen ebaluagarritasuna
termino kriminologikoetan

Egilea: Oihane Vergara Pueyo

Zuzendarikideak:

Ana Isabel Pérez Machio

Juan Aldaz Arregi

KRIMINOLOGIA GRADUA

Donostian, 2018ko ekainaren 22

Al fin y al cabo,
el miedo de la mujer a la violencia del hombre
es el espejo del miedo del hombre
a la mujer sin miedo

Eduardo Galeano
(Kazetari eta idazle uruguaitarra)

Nire esker ona lan hau burutzeko
emandako laguntzagarik Ana Isabel Pérez
Machío eta Juan Aldaz Arregi
zuzendarikideei, eta Juana Goizueta
Vértiz eta Maggy Barrère Unzuetari
JSKJan esku-hartzeko aukera
emateagatik. Ezin ahaztu, nire gurasoak.

AURKIBIDEA

I. SARRERA	5
1. Arrazoia eta helburuak	5
2. Metodologia	7
3. Egitura	8
II. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA	9
1. Arazo soziala	9
2. Kontzeptualizazioa	12
2.1. Generoa, eraikuntza sozial modura	12
3. Genero-indarkeria	21
3.1. Tipologia	23
3.1.1. Indarkeria fisikoa	24
3.1.2. Indarkeria psikologikoa	24
3.1.3. Indarkeria ekonomikoa	25
3.1.4. Sexu-indarkeria eta sexu-abusua	25
3.2. Indarkeriaren hirukia	27
3.2.1. Indarkeria zuzena	28
3.2.2. Indarkeria estrukturala	28
3.2.3. Indarkeria kulturala	29
3.3. Genero-indarkeriaren ezaugarriak	30
III. KRIMINOLOGIA ETA BIKTIMOLOGIA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAN	35
1. Kriminologia feminista	36
2. Emakumea eta biktimologia	37
2.1. Biktimaren kontzeptua	37
2.2. Emakumeak pertsona zaurgarri gisa eta jasandako biktimizazioa	38
2.3. Biktima-biktimarioa	42
IV. ORDENAMENDU JURIDIKOAK DITUEN TRESNAK EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI AURRE EGITEKO	44
1. Zigor Zuzenbidea, Zigor Kodea	44
2. Politika publikoak	49
2.1. Berdintasunerako Planak	58
2.2. Aurre! Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko I. Foru Plana	60
2.2.1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren sorrera	60
2.2.2. AURRE! Foru plana	61
V. EBALUAGARRITASUNA	63
1. Ebaluagarritasunerako tresna	69
2. Beharren ebaluazioa	70

VI. ATAL ENPIRIKOA	73
1. Elkarrizketen analisia	73
VII. EZTABAIDA eta ONDORIOAK	82
VIII. GOMENDIOAK	85
IX. LABURPEN EXEKUTIBOA	88
ERREFERENTZIAK	96
ERANSKINA I	105
ERANSKINA II	108
ERANSKINA III	110
ERANSKINA IV	112

I. SARRERA

1. Arrazoia eta helburuak

Gradu Amaierako Lan hau egiteko arrazoia Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoan¹ (JSKJ aurrerantzean) egindako ibilbidea da. UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateak 2016an sortutako egitura da, oinarri duena Klinikako ikasleek Zuzenbidea era tradizionalaz bestela ikastea, hau da, legedia eta jurisprudenzia gaindituz, eta gaur egungo errealitatean eta bertan dauden gatazketan barneratuz. Beraz, irakaskuntza Klinikaren ezaugarria da praktikarekin lotuta egotea ("ekintzazko" Zuzenbidea).

Ildo horretan, Fakultateko Batzarrak 2016ko maiatzaren 3an onartutako Funtzionamendurako arautegiko 1.artikuluaren arabera, JSKJ honela definitzen da: *“Zuzenbidearen eta ikasketa kriminologikoen sistema pedagogikoaren ikaskuntza eta – aldi berean– eraldatze gunea, eta diskriminazioaren aurkako estrategia juridikoak identifikatu eta haiei buruzko gogoeta egiteko laborategia. Izan ere, estrategia horiek baliabide egokiak izan daitezke ikasleak gizarte bidezkoago bat lortzeko duten zeregin garrantzitsuaz ohartzeko. Diskriminazioaren eta gizarte bazterketaren kontrako borroka da JSKJren ardatzetako bat, eta aniztasunaren eta tolerantziaren aldeko lana da bestea. Klinika elkarlanean arituko da bere helburu berberak dituzten gizarte talde, elkarte eta erakundeekin: hots, diskriminazioaren aurkako estrategiak sortzea eta giza eskubideak babestea.”*

JSKJ sortu zenean, Juana Goizueta Vértiz (JSKJ-aren zuzendarikidea) eta Ana Isabel Pérez Machío (JSKJ-aren irakasle ikertzaile iraunkorra) nirekin harremanetan jarri ziren honako eskaera egiteko: Kriminologia Graduko ikasleen ordezkari gisa JSKJ-aren Zuzendaritza Kontseiluko kide izatea. Ez nuen birritan pentsatu eta onartzea erabaki nuen. Bestalde, 2017/2018 ikasturtea nire azken ikasturtea zela ikusirik, Nahitaezko Praktikak eta Gradu Amaierako Lana Kliniketan bertan egiteko eskaera egin nuen; eta onartua izan nintzen.

JSKJaren helburuetako bi botere sistemek bakarka edo batera eragindako injustiziak pairatzen dituzten pertsona eta taldeekin (sexu, generoa, gizarte klasea, arraza/etnia, ezgaitasuna, nazionalitatea, sexu orientazioa edo identitatea, etab.) harremanetan jartzea eta botere publikoek justizia sozialeko politikan egiten duten lanari, zer arlotan esku hartu edo hobetu

¹ Informazio gehiago: <https://www.ehu.eus/eu/web/zuzenbide/gzkj>

daitekeen proposatzea direnez, Zuzenbide Fakultateak proiektu bat proposatu zuen, emakumeen aurkako indarkeriari dagokiona. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak garatutako **Aurre! Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko I. Foru Plana** hartu da oinarritzat helburu duena: *“indarkeria matxistaren molde guztiak ikusaraztea eta indarkeria sexistari heltzea eskumen esparru ezberdinetan politika eta estrategia berritzaileak ezarriz, Gipuzkoa emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko lurralde bihurtu dadin.”*

Proiektu honek berekin dakar JSKJ eta GFA arteko lankidetzaz; 2018ko otsailean sinatu zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta EHU/UPVaren arteko lankidetzaz-estrategikoaren hitzarmena, Etorkizuna Eraikiz programaren bitartez.

Aurre! Foru Planak duen esku-hartzea lautan zatitzen da: Prestakuntza, Ikerketa, Prebentzioa eta Sentsibilizazioa, eta Arreta eta Babesa. Hortaz, proiektuaren bitartez lortu nahi da ikerketaren eremuan jardutea proposamenak egiteko arretari dagokionez (sozio-juridikoa, psikologikoa, psiko-soziala), baita ebaluagarritasunari dagokionez ikerketa eta arreta eremuetan zehaztutako helburuak betetzen direla ziurtatzeko asmoz, eta era berean, foru planak lortutako aurrerapenak neurtuz.

Proiektu honetan diharduen lan-taldea Maggy Barrère Unzueta, Verónica Gallo Pérez, Ana Isabel Pérez Machío, Juan Aldaz Arregi eta neuk, Oihane Vergara Pueyo, osatutakoa da eta aurrera eramaten ari garen proiektuaren izena honakoa da: **La respuesta de los poderes públicos a la violencia de género tras la ley de custodia compartida: análisis de casos y propuestas en el marco del plan Aurre de la DFG.**

Hortaz, nire nahitaezko praktikak ikerketa-proiektu honetan ari dira aurrera eramaten; eta era berean, Gradu Amaierako Lana proiektu honekin lotuta dago.

Hasiera batetik, emakumeen aurkako indarkeria jorratzeko interesa nuen eta ikerketa-proiektu hori aukera paregabea zen horretarako. Bestalde, emakumeen aurkako indarkeria Klinika Juridikoaren ikuspegitik landu beharreko gaia iruditzen zitzaidan, indarkeria horrek desberdintasun-, diskriminazio-, menpekotasun-, botere-egoera larriak islatzen dituen heinean.

Gaur egun errealitatean dagoen arazo larrienetakoa da emakumeen aurkako indarkeria; hildako biktima-kopurua esanguratsua da. Honenbestez, botere publikoen esku-hartzea, beste eragileekin batera, beharrezkoa da indarkeria hori deuseztatzeko. Indarkeria murrizten ez den heinean, esku-hartze eraginkorrak egiten ez direnaren seinale da. Horregatik, Gradu Amaierako Lan honek helburu du botere publikoek justizia sozialeko politiketan egiten duten lanetan hobekuntza-proposamenen ekarpena egitea, emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizartea lortzearen, betiere, genero-ikuspegitik.

2. Metodologia

JSKJ baitan Gradu Amaierako Lana egiteak, ikerketa-teknika enpirikoak erabiltzeaz gain, pentsamendu kritikoa bultzatzea dakar; hau da, gizakiak duen gaitasuna gai baten ezagutza aztertu eta ebaluatzeko, aipaturiko ezagutzaren egitasuna argitzen eta ideia justifikatueta helden kanpoko faktoreak ezeztatuz. Hortaz, atal honetan azalduko da zein izan zen ikerketa enpirikoaren garapena nire GrAL-ean.

Behin ikerketa-proiektuaren berri jakindakoa, Gipuzkoako Foru Aldundiak garatutako **Aurre! Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko I. Foru Plana** aztertzen hasi nintzen. Ondoren, zuzendarikideekin elkartu eta ebaluagarritasunaren dimentsioa izango zela lan honen ardatz nagusia adostu genuen.

JSKJ eta GFA arteko lankidetzari esker, ikerketa-taldeko kideok Gipuzkoako Foru Aldundian hitzordua izan genuen Miren Elgarresta (GFA-ren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zuzendaria) eta Ana Agirrerekin (GFA-ko Lankidetzako, Giza Eskubideetako eta Berdintasuneko zerbitziburua).

Ikerketa-proiektua aurrera eramateko emakumeen aurkako indarkeria jasan duten emakumeekin elkarriketatzen ari gara, beraiek bizi izan dituzten edota bizitzen ari diren esperientziak zuzenean ezagutzeko. Horregatik, ikerketa-proiektuan erabiltzen ari garen metodologia kualitatiboa da; elkarriketan oinarritzen gara emakumeen beharrak ebaluatzeko, baita politika publikoentzat hobekuntzak eta gomendioak proposatzeko ere.

Gizarte zientzien ikuspuntutik, elkarrizketa teknika eraginkorra da datu nabarmen eta adierazgarriak lortzeko eta aztertzeko; eta informazio ugaria eskuratzeko aukera ematen du. Bestalde, elkarrizketatzaile eta elkarrizketatuaren artean erlazio interpersonalak sortzen da eta horrek, subjektuaren behaketa zuzena errazteko birtualtasuna ematen du. Era berean, elkarrizketatuak nahi duen guztia kontatu ahal izateko malgutasuna du.

Zehazki, lan honetan 3 elkarrizketen analisia egiten da; **Violencia de Género y Custodia Compartida: estudio sociojurídico sobre 3 casos acaecidos en la CAV** Gradu Amaierako Lanean eskuragarri daudenak.

Elkarrizketa hasi aurretik, emakumeari JSKJ eta ikerketa-proiektuaren berri ematen zaio. Elkarrizketa hasiera batean egituratu gabea da, emakumeari hitz egiten uzten zaio jasandako indarkeria ekintzei eta momentuan bizi duen egoera judizialari buruz, zaintza partekatuari dagokionez zehazki. Haria galtzen hasiz gero, elkarrizketatzaileak elkarrizketa bideratzen du. Zenbaitetan, datuak ustiatzeko asmoz elkarrizketa egituratua da eta galderak irekiak nahiz itxiak izan daitezke. Beraz, esan daiteke elkarrizketa mixto batean murgiltzen garela ezagutza eraikitzerako orduan.

3. Egitura

Jarraian, lan hau nola egituratu den azalduko dut. Lehenik eta behin, emakumeen aurkako indarkeriaren dimentsioa aztertzen da: legeek zer aurreikusten duten emakumeen aurkako indarkeriatzat.

Bigarrenik, emakumeen aurkako indarkeria izendatzeko bestelako kontzeptuak ere eman izan direnez (hala nola “indarkeria sexista”, “indarkeria matxista” edo “genero-indarkeria”) eta izendapen ohikoena genero-indarkeria denez, bai generoa eta bai indarkeria zer diren definitzera sartuko naiz. Hemen, genero-indarkeriaren dimentsio guztia landuko da legeek aurreikusten dutenean oinarrituta eta haren ezaugarriak zein diren aztertuz.

Hirugarren, Kriminologia Feministaz hitz egingo da eta ondoren kriminologiak biktimologiarekin duen harreman horretan emakumea biktima izatea zer dakarren: zein den

biktimaren kontzeptua, emakumeak zein mailako biktimizazioak jasan ditzakeen, emakumeak pertsona zaugarri modura, emakumeen seme-alaba biktimak.

Ondoren, lanaren zati enpirikoari emango zaio lekua. Lehen esan bezala, 3 elkarrizketen analisia egingo da emakumeen beharrak ebaluatzeko eta politika publikoentzat hobekuntzak eta gomendioak proposatzeko.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak garatutako **Aurre! Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko I. Foru Plana**-ren aurkezpena egingo da, bere esku-hartze arloak azalduz.

Ebaluagarritasunak duen garrantzia ere landuko da, batez ere politika publikoak diseinatzerako orduan kontuan hartu beharreko atalak azalaraziz. Horren harira, beharren ebaluazioaren beharra azpimarratzen da emakumeen aurkako indarkeriaren kasuan, ikusteko zein aspektu hobetuko lituzkeen ebaluazioa egiteak. Bestetik, politika publikoen zeregina zein den eta nola garatzen diren azalduko da; bai eta berdintasunerako planek duten garrantzia berdintasunean oinarritutako gizarte bat lortzeko asmoz.

Azkenik, JSKJ helburuetako batean oinarrituz (hau da, botere publikoek justizia sozialeko politikan egiten duten lanari, zer arlotan esku hartu edo hobetu daitekeen proposatzea) emakumeen aurkako indarkeriaren kasuan dauden gabeziak mahai gainean jarriko ditut eta gabezia horiei aurre egiteko eta horietan esku-hartzeko proposamenak eta hobekuntzak helaraziko ditut, emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko lurralde bati jarraipena emanaz eta justizia sozialaren aldeko gizarte lortzeko asmoz.

II. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA


1. Arazo soziala

Azken urteotan, emakumeen aurkako indarkeria ikusezina izan eta esparru pribatutik ateratzetik, erakundeen arreta eskatzen duen arazo publikotzat hartzea lortu da. Indarkeria hau emakumeek gizonekiko duten desberdintasun, mendekotasun eta botere-harremanen

adierazpen argiena da. Datuen arabera, 2003-2017 urteen bitarte horretan, hildako biktimakopurua 923koa izan da, hurrengo banaketa aurkeztuz urte bakoitzari dagokionez:

Grafikoa 1

Número de mujeres víctimas mortales por violencia de género en España. Años 2008 a 2017.



Iturria: Elaboración propia a partir de Delegación del Gobierno para la Violencia de Género.

1985an Nairobín ospatutako Emakumearen Munduko Hirugarren Konferentzian, 19. Gomendio Orokorren arabera, emakumeen aurkako indarkeria diskriminazio modu bat da zeinak emakumeari eskubideez eta askatasunez gozatzea galarazten dion. Indarkeria hori diskriminazio modura aurreikusten da, izan ere, emakume eta gizonen berdintasun estatusen oinarritzen den justizia-erregela hausten du.

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko Europako Parlamentuko Ebazpenak, 2008ko irailaren 3an onetsiak, honela dio: *“emakumeen aurkako indarkeria emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eragozten duen oztopo nagusietako bat da eta giza eskubideen urratze zabalduenetako bat, eta ez dauka muga geografiko, ekonomiko edo sozialik; kezagarria da, orobat, indarkeriaren biktima diren emakumeen kopurua (...) garrantzizkoa dela emakumeen aurkako indarkeriari aurre egitea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzearen”*.

Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioaren arabera, *“Emakumeen aurkako indarkeriak emakumeek bizitzaren eremu ezberdinetan jasaten duten egiturazko ezberdintasun egoeran ditu erroak. Desberdintasun horri gizartean eta familian sexuaren arabera egindako zereginen eta arduren banaketa tradizionalak eusten dio, banaketa horrek emakumeak gizonen azpitik jartzen baititu. Emakumeen aurkako indarkeria ezberdintasun horren beste isla bat da, ziurrena larriena dena, baina horrez gain, gizartea kontrolatzeko funtsezko tresna da, ezberdintasun egoerari eutsi eta iraunarazi egiten baitio”*. Hortaz, emakumeen aurkako indarkeriaren kausak lotuta daude emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasun historiko eta estrukturaleri.

Nazio Batuen Elkarteak, 1995eko IV. Mundu-konferentzian aitortu zuen emakumeen aurkako indarkeria oztopo bat dela berdintasunaren, garapenaren eta bakearen helburuak lortzeko, eta urratu eta kaltetu egiten duela giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen gozamina. Halaber, emakumeen aurkako indarkeria definitu zuen, botere-harremanetan emakumeen eta gizonen artean historian zehar izan diren desberdintasunen ageriko gisa.

Nazio Batuen Erakundeko Batzorde Orokorrak onartutako Emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzko Adierazpenean, hain zuzen ere, 1.artikuluan jasotzen du *“emakumearen aurkako indarkeria esamoldea honetara ulertzen da: emakumeengan oinarritutako edozein indarkeria egintza, emaitza moduan, emakumearentzat kalte edo sufrimendu fisikoa, sexuala edo psikologikoa duena edo izan dezakeena, eta baita, egintza horien mehatxuak, derrigortzea edo nahierara askatasunaz gabetzea, hori bizitza publikoan zein pribatuan gertatu.”* Hain zuzen ere, emakume izateagatik egindako indarkeria da; zehatzago, sexu bereizkerian oinarritzen den eta emakumea helburu duen edozein indarkeria ekintza.

Emakumeen aurkako indarkeria giza-eskubideen bortxaketa bezala argitzeak, ondorio bezala dakar erakunde publikoek konpromezua hartzea bidezko arduraz jokatzeko. Horren harira, 1/2004 Lege Organikoa, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babes emateko neurriei buruzkoa, Zioen Ebazpenak dio *“botere publikoak ezin dira geldi egon genero-indarkeriaren aurrean, indarkeria horrek beste edozerk baino gehiago erasotzen baititu Espainiako Konstituzioak aldarrikatutako oinarrizko eskubideak, hala nola, askatasuna, berdintasuna, bizitza, segurtasuna eta bereizkeriarik eza. Konstituzioaren 9.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, botere publiko horiek dute ekintza positiborako neurriak hartzeko betebeharra,*

eskubide horiek benetakoak eta eragingarriak izan daitezzen, eskubide horien osotasuna eragotzi edo zailtzen dituzten oztopoak kenduz.”

2. Kontzeptualizazioa

Emakumeen aurkako indarkeria izendatzeko bestelako kontzeptuak ere eman izan dira, hala nola, “indarkeria sexista”, “indarkeria matxista” edo “genero-indarkeria”. Horregatik, garrantzitsua da kontzeptuak ondo definitzea.

Nahiz eta hasiera batean genero-indarkeriaren dimentsioa aztertuko den, lan honetan genero-indarkeria kontzeptua erabili beharrean, “emakumeen aurkako indarkeria” izendatuko da aurrez aipaturiko beste izendapen horiek sorturiko nahasketa ekiditeko. “Emakumeen aurkako indarkeria” terminoa hurrengo arrazoi honengatik hobetsiko da lanean: indarkeria honen biktimak emakumeak direla agerian jartzeko.

Ildo horretan, genero-indarkeria kontzeptuak ez du adostasun osoa eta hainbat feministek ere uko egin izan diote terminologia honi (Rivera Garretas, 2001). Feminismoak irizten du genero-indarkeriaz hitz egiteak nagusitasun maskulinoa ezkututzen duen kategoria neutro bat erabiltzea dakarrela, hau da, biktima eta erasotzailea zein diren ezkututzen duela. Horregatik aldeztu dituzte beste terminologia batzuk; hala nola, emakumeen aurkako indarkeria edo gizonen indarkeria emakumeen aurka (Tubert, 2003).

Hala eta guztiz ere, izendapen ohikoena genero-indarkeria denez, jo dezagun ikustera genero hitzaren esanahia zein den.

2.1. Generoa, eraikuntza sozial modura

Genero kontzeptuaren inguruan hainbat definizio eman dira, beraz zaila da genero kontzeptu bakar batez hitz egitea. Honenbestez, jatorrira atzera egiteak badu bere garrantzia.

John Money, haurren endokrinologian espezialista eta orientazio konduktista duen sexologoak, 1955an barneratu zituen genero eta genero-identitate kontzeptuak, egoera intersexualak (hermafroditak) dituzten pertsonak nola heltzen diren sexu-identitate bat

zehaztera azaltzeko helburuarekin, sexu-identitate hori gorputzeko sexuarekin kontrajarria izan daitekeenean (Barrère, 2008).

Generoaren esanahiaz hitz egiteko, kontuan hartu behar dira bere jatorria eman duten baldintzak; baldintza historiko eta sozialak baitira sexua/generoa bereizketaren garapena azaltzen dutenak.

Kasu batzuetan sexuak eta generoak bat egiten ez zutenez, Stoller eta Money-k kontsideratu zuten pertsonaren bi aspektu horiek bereizi behar zirela (Izquierdo, 2013):

- Sexua: ezaugarri anatomiko eta fisiologikoak, zeinak bi aukera emango lituzke: arra eta emea.
- Generoa: ezaugarri psikiko eta sozialak, zeinak bi aukerak femeninoa eta maskulinoa izango lirarteke.

Giddens-en (2000) arabera, “mientras que sexo hace relación a las diferencias físicas, género alude a las de tipo psicológico, social y cultural entre hombres y mujeres” (133 or.).

Hortik abiatuz, genero-identitatea “es la permanencia, unidad y continuidad de la propia individualidad en tanto masculina, femenina o andrógina, especialmente tal como se la vive en la consciencia y se la experimenta en la conducta” (Money eta Ehrhardt, 1982: 71-79 or.).

Genero-errolari ere eman zitzaion bere garrantzia, hots, jokabide-arau multzoa, talde edo sistema sozial batean maskulinitzat edo femeninitzat jotzen dena, eta portaera sozialetan, janzkeran, orrazkeran, eta abarretan adierazten dena jokatzeko delarik, genero-identitatean islatzen da.

Era berean, genero-errola adierazpenak erreferentzia egiten dio “al papel que desempeña, en la sexuación humana, la biografía social y las conductas que los padres y el medio social desarrollan ante el sexo asignado al recién nacido” (Money, 1955: 253-64 or., Tubert, 2012an aipatua: 517-552 or.); “todo lo que una persona hace o dice para mostrar a los otros o a sí misma en qué medida es masculina, femenina o andrógina; esto incluye excitaciones y reacciones sexuales y eróticas, pero no se limita a ellas” (Money, 1985: 71-79 or., Tubert, 2012an aipatua: 517-552 or.).

Genero-errolak izaera soziala lortu zuen, sozialki aurreikusitako jokaera modu bat eta zehaztua izendatuz, eta genero-identitatea esleitutako sexu biologikoan finkatutako dimentsio psikikoa izendatzera pasa zen.

Genero kontzeptua ondo ulertzeko, honen atzean kategoria sozial erreferente bat dago: emakumeak kolektibo moduan, emakumeek sexua ezaugarri komuntzat duten talde bat osatzen duten heinean, sexua historikoki errealitate anatomiko bat delarik.

Aipatu, generoa bezala, arraza, kultura, etnia edo orientazio sexualak, “constituyen formas de estratificación de las que resulta la formación de grupos con problemas de subordinación social y/o marginación económica, política y cultural” (Cobo, 2001: 11-12 or.). Hortaz, marginazio hori ematen den heinean, diskriminazioaz hitz egin daiteke eta horren aurrean, CEDAW-en, hau da, Convención para la Eliminación de todas las Formas de Discriminación contra la Mujer (1981) diskriminazioa da:

Toda distinción, exclusión o restricción basada en el sexo que tenga por objeto o por resultado menoscabar o anular el reconocimiento, goce o ejercicio por la mujer, de los derechos humanos y las libertades fundamentales en las política, económica, social, cultural y civil o en cualquier otra esfera. (1.artikulua)

Generoaren eztabaida honetan esangura berezia du feminismoak. Feminismoaren abiapuntua da emakumeak, gizarteko talde gisa, gizonen giza-taldeak menderatzen dituela bai etxean, bai gizartean orokorrean. Teoria feministak agerian jartzen ditu gizarteko hainbat eremutan emakumeen bazterzea eta diskriminazioa sortzen duten egitura eta mekanismo ideologikoak. Adibidez, genero-indarkeriaren kontzeptua feminismoak identifikatu du kontzeptualki.

Hortik abiatuz, pentsamendu feministak genero terminoa 70. hamarkadan azaleratu zuen eta laurogeiko hamarkadan garatu. 70. hamarkadan, pentsamendu feministatik ulertu zen sexua eztabaidaezina zen errealitate anatomiko bat zela; eta generoa eraikuntza kultural preskriptiboa, historikoki berdefinitzen joan dena feminismoa sozialki eta kulturalki sustraitu den gizarte desberdinetako emakumeen indar korrelazioaren arabera.

Helburua emakumeen eta gizonen artean dagoen alde soziala azaltzea zen; hain zuzen ere, genero kontzeptua asmatu zen azaltzeko nola egiten eta eraikitzen diren testuinguru kultural

eta garai historiko guztietan emakumezkoentzat eta gizonezkoentzat hobesten diren portaerak, jarrerak eta sentimenduak.

Nahiz eta generoak hasiera batean emakumeei bakarrik egin erreferentzia, kontzeptuaren garapenak bere baitan hartu zituen emakumeen eta gizonen arteko harremanak. Hortaz, generoa gizarte antolamenduaren eta egituraren funtsezko osagaia dela onartu zen.

Generoaren kontzeptua prozesu dinamikoa, historikoa eta aldakorra da eta prozesu horren bidez, gizarte eta garai jakinetan definitzen da emakume izateak edo gizon izateak zer esan nahi duen. Definizio hori gizarte bat osatzen dutenen ezaugarri eta betebeharrak jakinetan oinarritu ohi da.

Laurogeiko hamarkadan, sexu biologikoa eta genero soziala banantzea zen helburua; zeren eta genero terminoa kategoria kultural bezala asmatu zen, sexu biologiko eta dimorfikoan oinarrituta zegoen kontzeptuari aurka egiteko. “Es útil distinguir entre sexo, en el sentido fisiológico o biológico del término, y género, que es un constructo cultural (un conjunto de pautas de comportamiento aprendidas)” (Giddens, 2000: 158 or.).

Sexua honela definitzen zen: “gorputzen ezaugarri anatomikoak; besteak beste, genitalak, ugaltze aparatuen ezaugarri morfologikoak, edo ezberdintasun hormonalak eta kromosomikoak bezalako faktoreak” (Maquieira, 2001: 127-190 or.); “El término "sexo" es ambiguo. Según se utiliza normalmente, indica las diferencias físicas y culturales que existen entre hombres y mujeres (el "sexo masculino" y el "sexo femenino"), así como el acto sexual en sí mismo” (Giddens, 2000: 158 or.).

Generoa sozialki nahiz kulturalki gizon edo emakume izatea esan nahi duenarekin adierazten den bitartean, sexuak maskulinitatea edo feminitatea biologikoki zehazten ditu. Hortaz, generoa sozialtzat hartzen da eta sexua biologikotzat: bata, subjektiboa, denbora eta espazioan aldatzen dena; bestea, objektiboa, unibertatsala eta denboraz kanpoko. Hala ere, talde sozialak sortzen ditu biak. Sistema soziokultural bakoitzak ezaugarri jakin batzuk egozten dizkie sexuari nahiz generoari, emakume izatea edo gizon izatea zer den definitzen du eta praktika sozial zehatzak ezartzen ditu modu dikotomikoan.

Kontsideratzen da sexu bakoitzetik genero bakoitza eraikitzen dela; hau da, naturak pertsona bakoitzari esleitzen diona (sexuaren kontzeptua) oinarritzat hartuz, gizarte bakoitzak genero bakoitzari aitortzen dizkion errolak, baloreak, arauak eta itxaropenak txertatzen dira gizarteratzeko orduan. Modu horretan, sexu-emakumea genero-emakumearekin zehazten da, sexu-gizona genero-gizonarekin. Baina, ez dago gizonezkoaren berezko genero maskulinoa, ezta ere emakumezkoei dagokien genero femeninoa; generoa sexuen balio kulturalaz jabetzen den sistema hertsagarri baten ondorioa da (Fonseca Hernández eta Quintero Soto, 2009).

Genero kontzeptuak bere konnotazio politikoa eta soziala garatzen du eta generoaren erabilera indartzen da ikuspuntu feministari esker, zeren eta irizten da sexua baino neutroagoa den terminoa egokiagoa izan daitekeela, sexuak emakumeentzat dituen konnotazio negatiboen arabera: mendekotasuna, asimetria, ikusezintasuna. Helburua zen erakustea gizarte patriarkala dela, eta ez biologia, emakumeek jasaten duten mendekotasun horren arduraduna. Horren harira, emakumeen menderatzearen kausak bi talde nagusitan elkartzen dira: batetik, feminismo marxista eta sozialista, kausa kapitalismoaren eta menderakuntza maskulinoaren arteko harremanari egotzen ziona; bestetik, feminismo erradikala, hegemonia maskulinoaren sistema gizarteetan dagoen patriarkatuan txertatua dagoela zioena (Bullen eta Hernández).

Alicia Puleok patriarkatuaren gaurkotasuna eta unibertsaltasuna baieztatzen ditu, non patriarkatua “gizartea antolatzeke sistema bat da, non boterea (politikoa, ekonomikoa, erlijiosoa eta militarra) erdiesteko postu gako guztiak edo gutiz gehienak gizonezkoen esku dauden” (Puleo, 2005: 39-42 or.).

Patriarkatua eta sexu-genero sistema sinonimotzat har daitezke, fenomeno berbera adierazten duten heinean (Puleo, 1995). Hala ere, antropologia feministak nahiago izan du patriarkatu hitzaren ordez genero-sistema esamoldea erabiltzea. Genero-sistemen nozioa kontzeptu estrukturala da, Robert Connellek 1987an agerrarazia. Connelle-n arabera, pertsonen arteko botere-harremanak gizarte-erakunde formal zein informalek eraginda daude; hala nola, familia, talde etnikoa, erlijioa, eskola, lana... eta bakoitza bere legeek edo arauak zuzendua da, eta balioak edo sinesmenak ezartzen dizkiote norbanakoari sistema politiko eta juridikoen bidez (Connell, 1999: 449-471 or.).

1975ean, Gayle Rubin antropologo feministak sexu-genero sistemaren nozioa hala definitu zuen: “hainbat neurri biltzen dituen multzoa, zeinaren bidez sexuaren materia biologikoa eta gizakien ugalketa esku-hartze sozial baten bidez egituratzen diren, eta modu konbentzional batean bideratzen, konbentzio haietako batzuk bitxiak izanagatik ere” (Rubin, 1986: 95-145 or.).

Rubin-ek sexu-genero sistemaren kontzeptua garatu zuen emakumeen posizioa egituratzen zuten elementu sozial, kultural eta ekonomikoen multzoaz jarduteko. Hortaz, sexu terminoak emakume edo gizon izateari egiten zion erreferentzia ikuspuntu biologiko batetik; eta generoak, emakumearen gorputzari eta gizonaren gorputzari normalean ezarritako dimentsio soziala. Rubin-en arabera, desberdintasun biologikoak finkoak diren bitartean, genero desberdintasunak sozialki inposatutakoak dira eta emakume batek eta gizon batek nola jardun behar duten diktatzen dituzten esku-hartze sozialen emaitza zapaltzaileak dira.

Seyla Benhabib-ek aldiz, definizio hau eman zuen:

Es el modo esencial, que no contingente, en que la realidad social se organiza, se divide simbólicamente y se vive experimentalmente. Entiendo por sistema de sexo-género la constitución simbólica y la interpretación socio-histórica de las diferencias anatómicas entre los sexos. (Benhabib, 1990: 125 or.)

Definizio hauetatik ondorioztatzen da, gizarteak generoaren arabera banatzen dituela baliabideak.

Generoaren ikerketak Queer Teoriarekin ahaidetuak egon dira, biek identitateak zalantzan jartzen dituztelako sexualitatearen inguruko identifikazio- eta bereizkuntza-prozesu berriak berriz formulatuz.

Queer Teoria generoari buruzko teoria bat da zeinak generoa eraikuntza sozial baten emaitza dela baieztatzen duen, eta ondorioz, giza-naturan ez daudela biologikoki erregistratutako rol sexualak, baizik eta hainbat rol sexual jokatzeko forma sozialki aldagarriak; hortaz, generoa eraikuntza bezala hartzen du eta ez gertaera naturala bezala. Queer Teoriak gertaera sexuala bereizketa dikotomiko bezala ulertzen duen gizarteko arauetatik kanpo dauden identitateak berpentsatzeko aukera ezartzen du.

Judith Butler-ek eragin handia izan du teoria feminista eta queer ikerketetan, generoaren ikuspegi imitatibo eta adierazgarria proposatzeagatik. *Gender Trouble: Feminism and the Subversion of Identity* (1990) lanean zalantzan jartzen du generoaren dikotomia eta, horrekin batera, generoaren teoria performatiboa garatzen du, subjektuaren identitatea nola eratzen den azaltzen duena. Judith Butler-en (2007) planteamenduaren arabera generoa eta sexua espazio, denbora eta ingurune sozial zehatz batean gertatzen diren eraikuntzak dira. Generoa kulturaren arabera eraikitzen da: ondorioz, generoa ez da sexuaren emaitza kausala, ezta ere sexua bezain zurruna.

Anthony Giddens-en arabera, sexua biologikoki determinaturiko zerbait bezala kontsideratu beharrean eta generoa kulturalki ikasten den zerbait bezala, gizarte zientzietatik biak sozialki eraikitako produktu bezala kontsideratu behar direla azpimarratzen du (Giddens, 2000: 158 or.).

Sexutzat ulertzen dena, generoa bezala, kulturalki eraikitako produktu bat da. Hortaz, ikuspegi feministatik nahiago izan da sexu-genero harremanei buruz hitz egin, eta ez sexu-genero sistemaz, sexua elementu kulturalik gabea den elementu biologikoa bezala ulertzeko ideian erortzea saihesteko.

Generoa izaera multidimentsionala duen kategoria bezala kontuan hartzen duten egileek ikuspegi desberdinak artikulatzen dituzte. Ikuspegi antropologikotik, sexuaren sorrera sinbolikoa, dimorfismo sexual anatomikoaren interpretazio kulturala, eta gizarte bakoitzeko maskulinitatearen eta feminitatearen modeloak ikasten dira. Ikuspegi psikosozial edo interpersonala modelo horiek sortzen eta gizabanakoei transmititzen dizkieten prozesu sozialetan zentratzen da; ildo horretan, generoa egitura sozialen eta sexuen arteko erlazioen antolatzailea da: emakume eta gizonen arteko botere-harremanak, gizarteratze eta elkarrekintza prozesuak. Ikuspegi psikologikoa genero-identitate eta genero-errolaren garapenaz arduratzen da, hau da, generoaren bizipen pertsonala eta jokabidean eragina duten idealak, errealitatearen pertzepzioa eta egonkortasun emozionala.

Taula 1

Generoaren izaera multidimentsionala

NIVELES	CONCEPTUALIZACIÓN	CONTENIDOS	DISCIPLINAS
----------------	--------------------------	-------------------	--------------------

	DEL GÉNERO	ESPECÍFICOS	
Socio-Cultural	Construcción cultural del sexo que varía en función de los contextos socioeconómicos, étnicos, religiosos e históricos	*Los modelos normativos de masculinidad y feminidad	Antropología
Psico-social o Interpersonal	Principio organizador de las estructuras sociales y de las relaciones entre los sexos	*Los procesos sociales a través de los cuales se construye el género *Los procesos de socialización mediante los cuáles se transmiten los modelos normativos sociales	Sociología
Individual	Conjunto de características tipificadas sexualmente internalizadas a través del proceso de socialización, cuya incidencia en la organización y constitución de la identidad es fundamental	*Los procesos de tipificación de género *La identidad de género *Los estilos de rol de género y su relación con otras variables comportamentales y de personalidad	Psicología

Iturria: “A vueltas con la categoría género” García-Mina Freire, A., 2000, *Papeles del psicólogo* (76), 35-39.

Alda Faciok genero kontzeptua modu honetan definitzen du:

El concepto de género alude, tanto al conjunto de características y comportamientos, como a los roles, funciones y valoraciones impuestas dicotómicamente a cada sexo a través de procesos de socialización, mantenidos y reforzados por la ideología de instituciones patriarcales. Este concepto, sin embargo, no es abstracto, ni universal, en tanto se concreta en cada sociedad de acuerdo a contextos espaciales y temporales, a la vez que se redefine constantemente a la luz de otras realidades como la clase, etnia, nacionalidad, habilidad, etc. (Facio eta Fries, 1999: 17or.)

Genero kontzeptuaren definizio eguneratu bat Aurelia Martín Casaresek (2006) emandakoa da: “emetasuna, artasuna, androginia edo beste kategoria soziobiologiko batzuk eraikitzea gizarte bakoitzak definituta, eta eraiketa horiexek ahalbidetzen dute ezarritako rolak, estereotipoak, botere harremanak eta estratifikazioa aztertzea” (68 or.). Bestalde, “generoa egin, desegin eta berregin egiten da” (Stolcke, 2003: 70-73 or.).

Laburbilduz, generoa eraikuntza soziala dela esaten denean, esan nahi da gizarte edo kultur sistema jakin batean asmatu edo eraiki den kontzeptua dela. Generoa eraikuntza kultural bat ere bada, zeinak agerian jartzen duen emakume eta gizonen arteko desberdintasun soziala. Desberdintasun hau argumentu ontologikoaren bidez legitimatzen da; eraikuntza sozial horrek izaera naturala duela defendatuz.

Kontzeptu hori genero-sistema osatzen duten egitura ekonomiko, politiko eta soziokulturalen arteko loturen bidez eraikitzen da, sistema horren balio, ezaugarri eta idealen konplexuarekin, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunetan gauzatua, esparru publikoan nahiz pribatuan, lan harremanetan eta pertsonen arteko harremanetan, indarkeriaren bidez eskubideak urratzean eta pertsonaren osotasuna bortxatzean.

Harreman sozialen bidez definitzen da generoa eta harreman horietan oinarritzen da gizartearen antolaketa politikoa, ekonomikoa eta soziala. Hori dela eta, ordena sozialaren funtsezko osagai bat da genero-sistema. Genero-harremanak beti botere-harremanak dira,

hierarkiak dira, hain zuzen baliabide materialak eskuratzeko bideak eta boterea gauzatzeko aukerak denentzat berberak ez izatearen ondorioz.

Hortaz, genero kontzeptua eraikuntza soziokultural bat da, hau da, gizon eta emakumeez zer ulertzen den eta horiengandik zer itxaroten den denbora eta leku jakin batean, pertsonak “emakume” eta “gizon” egiten dituen; eta eraikuntza soziokultural bat den heinean, berreraiki egin daiteke justizia sozial terminoetan.

Behin, generoaren kontzeptua ondo definituta, jo dezagun genero-indarkeriaren fenomeno sozialari lekua ematea.

3. Genero-indarkeria

Genero-indarkeriaren definizioa eman duten eta hau ezabatzeko neurriak aurreikusi dituzten legeak hainbat dira, Espainiar estatuko Zigor Kodean ere badu lekua.

Aipamen berezia zor zaio 2004ko abenduaren 28ko 1/2004 Legeari, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa, hain zuzen ere. Lege horrek, 1.artikulan aurreikusten du genero-indarkeriaren kontzeptua *“genero-indarkeriatzat ulertzen da indarkeriazko egintza oro, fisikoa nahiz psikologikoa, baita sexu-askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo nahierara askatasunaz gabetzea ere”* eta Zioen Azalpenean dio *“lege honen xedea da indarkeriaren kontra egitea, indarkeria emakumeen aurka erabiltzen dutenean horien ezkontide direnek edo izan direnek, edo horiekin antzeko maitasun-harremanak dituztenek edo izan dituztenek, nahiz eta elkarbizitzarik ez izan, bereizkeriaren, desberdintasun-egoeraren eta gizonek emakumeei ezartzen dizkieten botere-harremanen agerpen gisa.”*

Bestalde, 2003ko apirilaren 8ko 16/2003 Legeak, genero-indarkeriaren aurkako aurrezaintza eta babes integralekoari buruzkoa, aurreikusten du genero-indarkeria *“todas las manifestaciones de violencia ejercidas sobre las mujeres por el hecho de serlo que impliquen o puedan implicar daños o sufrimientos de naturaleza física, sexual, psicológica o económica, incluidas las amenazas de realizar dichos actos, coacción, intimidación o privación arbitraria de libertad, en la vida pública o privada (...) las conductas que tengan por objeto mantener a las mujeres en la sumisión, ya sea forzando su voluntad y su*

consentimiento o impidiendo el ejercicio de su legítima libertad de decisión en cualquier ámbito de su vida personal.”

Azaroaren 26ko 13/2007 Legeak, genero-indarkeriaren aurkako prebentzio-neurri eta babes osoari buruzkoa, honela definitzen du genero-indarkeria: *"Toda conducta que atenta contra la dignidad e integridad física y moral de las mujeres por el hecho de serlo, como manifestación de la discriminación, la situación de desigualdad y las relaciones de poder de los hombres sobre las mujeres".* Gainera, azpimarratzen du *"la violencia comprende cualquier acto de violencia basada en género que tenga como consecuencia, o que tenga posibilidades de tener como consecuencia, perjuicio o sufrimiento en la salud física, sexual o psicológica de la mujer, incluyendo amenazas de dichos actos, coerción o privaciones arbitrarias de su libertad, tanto si se producen en la vida pública como privada."*

Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, 50. artikuluan emandako definizioari jarraituz, *"Sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan."*

Nazio Batuetako Asanblada Orokorrak (1993) baieztatzen du "genero-indarkeriak askatasunen garapena hondatzen edo ezeztatzen du eta arriskuan jartzen ditu emakumeen giza eskubideak, gizabanakoaren askatasuna eta emakumeen osotasun fisikoa". Bestalde,

Aquella violencia basada en el sexo y dirigida contra la mujer porque es mujer o que le afecta en forma desproporcionada. Se incluyen actos que infligen daño o sufrimiento de índole física, mental o sexual, incluidas las amenazas de tales actos, la coerción o las privaciones arbitrarias de libertad, ya ocurran en la vida pública o en la privada. (Nazio Batuetako Asanblada Orokorra, 1993).

Ildo horretan, indarkeria nozioak bortizkeria edo larderia esan nahi duen heinean, Convención Interamericana para Prevenir, Sancionar y Erradicar la Violencia contra las

Mujeres-ek (Convención Belém do Pará) (1994) emakumeen aurkako indarkeria horrela definitzen du: “cualquier acción o conducta, basada en su género, que cause muerte, daño o sufrimiento físico, sexual o psicológico a la mujer, tanto en el ámbito público como en el privado” (I. Kapituluak 1. Artikulua).

Lege guztiek dute amankomunean emakume izateagatik emakumeen aurka erabiltzen den indarkeriazko ekintza oro dela genero-indarkeria, non indarkeria horrek emakumearen hainbat eremutan kalte egiten duen, biktimaren ongizate sozialean eraginez. Bestalde, genero-indarkeriak jaso ditzakeen portaerak kontaezinak dira.

3.1. Tipologia

Bortizkeria guztia garatzen da boteretsuagoa eta sendoagoa den norbait, ahulagoa den beste norbait menderatzen saiatzen denean nagusitasun-menperatze egoeraren bidez. Emakumeen aurkako indarkeriaren kasuan, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna dago arazoaren oinarrian.

Gizartea sexu bati eta besteari esleitutako funtzio desberdinen arabera dago garatua: gizonak indartsu, boteredun, gizontasun modura; eta emakumeak, arrakastara eta boterera zuzenduak ez dauden eta sozialki maskulinoetatik beherakotzat hartuta dauden izaki modura. Funtzioen banaketa honek gizarte patriarkal batera gidatzen du, non eskubideak kentzen zaizkion emakumeari; horren ondorio zuzena da emakumea gizonaren objektu gisa kontsideratzea.

Balio patriarkatu horiek aditzera eraman dute emakumeek eta gizonek ezaugarri desberdinak dituztela, eta ondorioz, gizartean jardun desberdinak dituztela; emakumea aurrez ezarritako egoerarekin amaitzen saiatzen denean, gizonak indarkeriarekin erantzuten du bere estatusa eta emakumearen jabetza mantentzeko. Une horretan sortzen da emakumeen aurkako indarkeria.

Definizioetan aipatu den moduan, hainbat eremutan kalte egiten du emakumeengan ezartzen den indarkeriak, eta indarkeria, mota desberdinetakoa izan daiteke. Azaroaren 26ko 13/2007 Legeari jarraiki, Lege honek lau indarkeria mota desberdin barnehartzen ditu genero-

indarkeriaren esparruan: fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa eta, sexu-indarkeria eta sexu-abusua.

3.1.1. Indarkeria fisikoa

Emakumearen gorputzaren aurkako edozein indar-egintza sartzen du, emaitzarekin edo lesio fisikoa edo kaltea produzitzeko arriskuarekin, bere ezkontidea edo bere ezkontidea izan dena edo antzeko maitasun-harremanen bidez era iraunkorrean lotuta dagoena edo egon denak eraginda. Halaber, emakumearen aurkako indarkeria fisikoko egintzat hartzen da gizonek bere familiaren ingurunean edo bere ingurune sozial edota laboralean jardundakoak.

Hots, min fisikoa eragiten duen edo eragin dezakeen eta istripuz gertatu ez den edozein ekintzat definitu izan da indarkeria fisikoa (MURGIBE, 2010).

Indarkeria fisikoa ulertzen da “por violencia la denominada <violencia propia>, esto es, todo acometimiento físico de carácter agresivo que constituya ejercicio de fuerza física sobre las personas” (Silva, 2015: 241 or.).

Bultzadak, ile-tiraldiak, erredurak, ostikoak, kolpeak, zaplaztekoak, hozkadak, torturak, erailketak... dira indarkeria fisikoaren adibide.

3.1.2. Indarkeria psikologikoa

Hitzezko edo ez-hitzezko jokaera guztia sartzen du, mehatxuen, apalkuntzen edo irainen bidez emakumearengan balio-galera edo sufrimendua sor dezakeen edozein jokaera, obedientzia eskatzea edo men egitera behartzea, hertsatzea, isolamendua, irainak, erruduntzea edo mugak jartzea emakumearen askatasunean ere, bere ezkontidea edo bere ezkontidea izan dena edo antzeko maitasun-harremanen bidez era iraunkorrean lotuta dagoena edo egon denak eraginda. Halaber, emakumearen aurkako indarkeria psikologikoko egintzat hartzen da gizonek bere familiaren ingurunean edo bere ingurune sozial edota laboralean jardundakoak.

“Hitzezko portaera hertsagarriak (adibidez, irainak) eta hitzezkoak ez diren portaera hertsagarriak, bikotekidearen gorputza helburu ez dutenak (esate baterako, ateei kolpeak ematea edo gauzak hondatzea)” (Jiménez Casado, 1995: 20 or.).

Beharrezkotzat jotzen da abusu psikologikoa eta abusu emozionala bereiztea. Portaera berdinak dira, baina indarkeria psikologikoa indarkeria fisikoa ere noizbait gertatu denean ematen da; eta gehiegikeria emozionala aldiz, gehiegikeria fisikoaren aurrekaririk gabea da, baina min edo egonezin emozional handia eragiten du (MURGIBE, 2010).

Tratu txar psikologikoen artean “inguruneko tratu txarrak” deiturikoak ere sartzen dira, adibidez: objektuak apurtzea edo kolpatzea, tresnak suntsitzea, botatzea, etab (Ruiz-Jarabo eta Blanco, 2006: 41 or.).

Txantxak, iruzkinak, mehatxuak, isolamendua, larderia, mespretxua, irainak, kritikak eta apalkuntzak leku publikoetan eta pribatuetan... dira indarkeria psikologikoaren adibide.

3.1.3. Indarkeria ekonomikoa

Emakumearen eta bere seme-alaben ongizate fisiko edo psikologikorako baliabideen edo bikotearen eremuan partekatutako baliabideen gabetzea sartzen du, nahita egindakoa eta legalki justifikatu-gabea.

Indarkeria mota hau “diruari buruzko informazioa edukitzeko eskubidea edo dirua bera erabiltzekoa ukatzean datza” (Emakunde, 2001).

Familia-ekonomiaren baliabideen kontrola ukatzen zaio emakumeari, dirua mugatzen da, lan egitea debekatzen da diru-sarrera propioak ez izateko...

3.1.4. Sexu-indarkeria eta sexu-abusua

Erasotzaileak bortxatutako edo emakumeak ez-onartutako sexu-izaera duen edozein jokaera sartzen du, onartu gabeko sexu-harremanen inposaketa bere gain hartuz indarraren bitartez edo larderiarekin; eta sexu-abusua, kontuan hartu gabe erasotzaileak biktimarekin duen senar-

emazte harremana, bikote-harremana edo ahaidetasunekoa. Beraz, sexu-indarkeria emakumearen nahiaren aurka izandako edozein sexu-harreman da.

Jazarpena, bortxaketa, objektuen sarketa, desiratu gabeko ukituak, mutilazio genitala...

Argi geratzen da beraz, emakumeen aurkako indarkeria hainbat ekintzen bidez gauzatzen dela eta indarkeria horrek ez dakarrela derrigorrez indarkeria fisikoaren erabilera. Indarkeria psikologikoa indarkeria fisikoaren aurrekaria izan ohi da, eta askotan indarkeria fisikoa baino larriagoa. Bi indarkeriek ez dute modu berean jarduten. Indarkeria fisikoak osotasun fisikoa kaltetzen du lesio, traumatismo edo beste edozein erasoren bidez; eta indarkeria psikologikoa jarraia da denboran zehar, hau da, denboran nabarmentzen eta areagotzen den kaltea da eta zenbat eta denboran gehiago iraun, orduan eta larria eta sendoagoa izango da kaltea.

Bi indarkerien arteko beste desberdintasuna agerikotasuna da. Indarkeria fisikoa agerikoa da, hau da, biktima ohartzen da fisikoki erasotua dela, baina psikologikoa zailagoa da antzematea, ikusezinagoa da, pausatuagoa, ezkutukoa... kontzientzia hartzea ez da erraza.

Bestalde, biktimak jasandako kalte psikologikoen adierazpena gertaera traumatikoa izan ohi da, ez kasu guztietan. Gertaera traumatikoak mota ezberdinetakoak izan daitezke: naturalak (lurrikarak, uholdeak) akzidentalak (suteak, auto istripuak) eta nahita egindakoak (eraso sexualak, atentatu terrorista, bahiketa, tortura, familiako baten indarkeriazko heriotza). Azken honetan trauma larriagoa eta iraunkorragoa da; nahita egindako kasuetan, gertaera traumatikoa astuntzen dutenak babesgabetasun pertzepzioa eta gizakiarenganako konfiantza eza dira, amorrutik eta mendeku sentimenduak hala nola. Gizakiarengan izandako espektatiba horiek hausten direnean, zailagoa izaten da estres horri aurre egiteko estrategiak martxan jartzea. Gainera, indarkeriazko delituak gertaera negatiboak dira, modu zakarrean bizitutakoak, beldurra eta babesgabetasuna sortzen dutenak, pertsona baten identitate fisikoa edo psikologikoa arriskuan jartzen dutenak eta biktima egoera emozional batean uzten dutenak non ez den gai bere errekurtso psikologikoekin emozio horri aurre egiteko (Echeburúa, de Corral eta Amor, 2004).

3.2. Indarkeriaren hirukia

Indarkeriaz hitz egiterakoan, jakin beharrekoa da indarkeria hori nondik datorren eta zerk legitimatzen duen. Ildo horretan, Johan Galtung-ek (2003) indarkeriaren hirukia (triángulo de la violencia) deituriko kontzeptua sortu zuen gatazka sozialetan ematen den indarkeriaren dinamika irudikatzeko. Indarkeria ebazteko ordea, indarkeria mota guztietan esku-hartu behar da, hau da, hiru mota desberdinetan:

- **Indarkeria zuzena**, ikusgarria dena, portaeren bidez gauzatzen da eta indarkeriazko-ekintzei erantzuten dio.
- **Indarkeria estrukturala**, beharren asetzea baimentzen ez duten egitura-multzoetan zentratzen dena, eta hain zuzen ere, beharren ukapenean gauzatzen da.
- **Indarkeria kulturala**, indarkeriazko marko legitimatzailea sortzen duena eta jarreretan gauzatzen da.




Figura 1. Galtung-en indarkeriaren hirukia. Iturria: “Los conflictos socio-culturales del Poniente Almeriense: El Ejido, una aproximación desde los Estudios para la paz” Moldes Anaya, S., 2014, *Revista de Paz y Conflictos* (7) 246 or.

Hiru mota horietatik, zuzena da argiena eta ikusgarriena, eta beraz, hura antzematea eta hari aurre egitea errazagoa suertatzen da besteen aldean. Gainerako indarkeriak ordea, ez dira horren ikusgarriak hauetan faktore gehiagok eragiten baitute, eta horregatik jatorria

antzematea, aurrezaintza egitea eta ebaztea konplexuagoa da. Jo dezagun indarkeria mota bakoitza ezagutzera.

3.2.1. Indarkeria zuzena

Indarkeria zuzena, fisikoa zein ahozkoa ikusgarriak dira jokaera moduan, indarkeriazko ekintzei erantzuten die eta portaeren bidez gauzatzen da. Indarkeria mota hau pertsona batek beste pertsona bati nahi egiten diona da, non erasotua izan dena kaltetua suertatzen den.

La violencia directa (verbal, psicológica y física) es aquella situación de violencia en donde una acción causa un daño directo sobre el sujeto destinatario, sin que haya apenas mediaciones que se interpongan entre el inicio y el destino de las mismas. Es una relación de violencia entre entidades humanas (personas, grupos, etnias, instituciones, estados, coaliciones), siguiendo un proceso sujeto-acción-objeto, sin que nada obstaculice la ejecución del mismo. En consecuencia, para evitarla bastaría con que el sujeto o los sujetos que quieren ejecutarla decidieran en sentido contrario eliminar dicha violencia. (Jiménez, 2012: 32 or., Moldes, 201ean aipatua: 246 or.)

Galtung-en arabera, indarkeria zuzena bi ikuspegi okerrekin erlazionatuta dago: alde batetik, indarkeriaren identifikazioa bakearen absentiarekin eta gatazka gizakiarra, soziala edo naturalaren ikuskera zerbait erabat negatibo bezala. Hortaz, ideia horiei erantzuna eman eta indarkeria ulertzeko asmoarekin, mekanismo zapaltzaile eta zigortzaileak garatzen dira indarkeria-egoera horiek legalki aurreikusteko; eta legezko tasun hori betearazteko sistema desberdinak garatzen dira (legeak, indar polizialak, espetxeak...)

3.2.2. Indarkeria estrukturala

Indarkeria estrukturala beharren asebetetzea baimentzen ez duten egitura-multzoez osatuta dago (Jiménez, 2012). Indarkeria mota okerreña da, indarkeria guztien jatorria delako, kaltegarriena eta aurre egiteko zailena, antzematea zaila baita.

Galtung-ek (1969) honela definitu zuen: “aquello que provoca que las realizaciones efectivas, somáticas y mentales, de los seres humanos están por debajo de sus realizaciones potenciales” (27-72 or.).

Indarkeria estrukturalak erreferentzia egiten die ustiapen-, diskriminazio-, marjinazio- eta nagusitasun-egoerei (Tortosa, 1992). Hortaz, indarkeria estrukturala da indarkeria justifikatzen, legitimatzen eta bultzatzen duten arrazoiketak, jarrerak eta ideiak (Tortosa, 2002).

3.2.3. Indarkeria kulturala

Indarkeria mota honek erreferentzia egiten die kulturala legitimatzen duten alderdiei; hala nola, erlijioa, filosofia, zuzenbidea, etab.

Galtung-en arabera indarkeria kulturala indarkeria sinboliko bat da, zeina

se expresa desde infinidad de medios (simbolismos, religión, ideología, lenguaje, arte, ciencia, leyes, medios de comunicación, educación, etc.), y que cumple la función de legitimar la violencia directa y estructural, así- como de inhibir o reprimir la respuesta de quienes la sufren, y ofrece justificaciones para que los seres humanos, a diferencia del resto de especies, se destruyan mutuamente y sean recompensados incluso por hacerlo. (Galtung, 1999)

Jimenez-ek (2012) baieztatzen du

la violencia cultural lo hace desde las ideas, las normas, los valores, la cultura, la tradición, como alegato o aceptación natural de las situaciones provocadas por ella. Es decir, todo aquello que en definitiva desde la cultura legitime y/o promueva la violencia de cualquier origen o signo. (37 or.)

Indarkeria kulturala gatazkaren kulturak indartzen du; hau da, indarkeriaren erabilera sustatzen duten sinismen, arau eta balio pertsonal zein sozialek osatzen duten kultura. Era berean, indarkeria kulturala erabiltzen da genero-harremanen inguruko postura fanatiko horien baieztapena lortzeko.

Ondorioztatzen da indarkeria zuzenaren kausak indarkeria estrukturalarekin erlazionatuta daudela edo indarkeria kulturalaren bidez justifikatuak; egoera asko botere-abusuen edo desberdintasun sozialen ondorio direlako, zeinak zapal dutako taldeengan eragiten duen.

Planteamendu hauen arabera, indarkeriaren hirukia aplikagarria da genero-indarkeriaren kasuan.

A. Indarkeria zuzena	B. Indarkeria estrukturala	C. Indarkeria kulturala
<ul style="list-style-type: none"> - Erailketak - Jipoiak 	<ul style="list-style-type: none"> - Boterearen pisua/Nagusitasuna - Amatasuna 	<ul style="list-style-type: none"> - Emakumearen gutxiagotasunaren ideia - Matxismoa

Beraz, genero-indarkeriaz hitz egitean, ez da soilik indarkeria zuzenaz jarduten ari (hau da, fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa...), baizik eta gainerako bi indarkeriak ere hartzen dira kontuan. Horrela, generoan oinarritutako indarkeria-moduak diren egitura patriarkatu zein ideologia matxistak, indarkeria zuzenaren adierazpen desberdinak azaltzen eta justifikatzen dituzte.

Hau ikusirik, helburua genero-indarkeriarekin amaitzea baldin bada, ez da nahikoa indarkeria zuzenean soilik esku-hartzea, indarkeria estruktural eta kulturalen ere beharrezkoa da. Era berean, genero-indarkeriaren dimentsio estruktural eta kulturalengatik, arazo bat da zeinak gizar-teari atxikitzen dizkion haren kausak eta ondorioak, baita ere neurriak hartu beharra.

3.3. Genero-indarkeriaren ezaugarriak

Genero-indarkeriak baditu hainbat aspektu beste indarkeria mota batzuegandik bereizgarriak direnak. Indarkeria hau ideologia batetik eratortzen da, egitura patriarkatu batetik hain zuzen ere eta ondorioz, emakume eta gizonen arteko desberdintasuna lagundu eta mantentzen duten ohitura, sinesmen eta tradizioetan oinarrituta dago. Era berean, indarkeria instrumentala da, tresna bezala erabiltzen da emakumea menderatzeko eta emakumeak menderatze hori jasaten du errespetua, maitasuna eta laguntza jasotzea espero duen pertsona baten aldetik. Edozein

emakumek jasan dezake eremu pribatuan (bikote barnean) garatzen den indarkeria mota hau, pribatu izate horrek detekzioa zailtzen duelarik (Junta de Andalucía, 2016).

Indarkeriaren intentsitatea hazkorra da denboran zehar, baita dinamikoa ere. Emakumeak jasaten dituen tratu txarrak pixkanakako agerpen progresiboa du eta aldez aurretiko faktoreek badute bere eragina (historia pertsonala, sinesmen sexistak, izaera oldarkorra). Indarkeria fisikoaren edo psikologiko larriaren aurrekariak kontsideratzen diren hitzezko eraso goiztiarrak nabariak dira erlazioaren lehen etapan eta indarkeriarako joera estaltzen da. Erlazioa egonkortzen denean emakumeak alde egiteko zailtasun handiagoak izango ditu eta horrenbestez, gizonezkoak botere handiagoa sentituko du. Tratu txarrak hasi ondoren frekuentzia eta intentsitatea igo egiten dira, eta indarkeria mota desberdinetara zabaltzen da. Ondorioz, emakumearen autoestimua eta autonomiaren beherakada gertatzen da, hau da, defentsa estrategia eta errekurtsioak behera egiten du, emakumea erlazio horretan harrapatu geratzen delarik. Azkenik, urteekin tratu txarren kronifikazioa ematen da eta emakumeak hurrengo hauek gara ditzake: babesgabetasuna, inpotentzia, iniziatiba eza, beldurra, segurtasun falta, ezezkortasuna, herstura, estres postraumatikoa, depresioa.

Tratu txarren dinamika hobeto ulertzeko, Leonor Walker antropologoak garatutako “Indarkeriaren zikloaren teoria” baliagarria da. Teoria honen arabera, tratu txarren dinamikak izaera ziklikoa du, hiru fasetan garatzen dena; hala ere, kontuan izan behar da indarkeriak ez duela nahitaez ziklikoa izan behar, baliteke bat-batean agertzea. Hiru fase hauek bereizten dira (Walker, 1979):

1. Fasea: Tentsioaren metatze edo eraikitze fasea.

Tentsioa liskar txikien eraginez sortzen da. Egoera horren aurrean, emakumeak frustrazioa sentitzen du eta, horrez gain, egoera nahasi batean bizi da. Azkenean, emakumeak pentsatzen du tratu txarren agerpenak bere porrot pertsonala adierazten duela eta bera dela horren arduraduna. Horregatik, emakumea egoera kontrolatzen saiatzen da aurrez balio izan duten jokabideekin: gizonaren nahiei erantzuten die, gizonarentzat desatseginak diren gauzak ekiditen saiatzen da... Era berean, gertakariak minimizatzeko joera du, zuritzekoa.

Indarkeriazko gertaerak gertatzen dira; hala nola, irainak, axolagabekeria...; hots, indarkeria psikologikoa.

2. Fasea: Agresioaren edo tentsioaren askapen fasea.

Aurreko fasean metatutako tentsioa askatzen da, gertakari baten bitartez. Askapen honek hainbat modu izan ditzake (fisikoa, psikologikoa, sexuala), baita intentsitate-gradu desberdinak ere. Beraz, fase honetan kontrola galtzen da eta tratatu txarrak hasten dira.

Erasotzaileak du boterea eta emakumea ahul eta indargabe sentitzen da. Erasotzailearen motibazioa emakumearen jokabideak zigortzea da, gizonak bere botere-ikuspegitik desegokitzat hartzen dituelako jokabide horiek. Indarkeriazko gertakari hori eten egiten da erasotzaileak uste duenean biktimak ikasi duela. Biktimak berriz, Walker-ek izendatutako “ikasitako babesgabetasun-egoera” bizitzen du; honen arabera, indarkeria-ekintzak jasaten dituzten pertsonengan sentimendu berezi bat sortzen da, edozer gauza egin arren emaitza berdina izango delakoa, alegia.

3. Fasea: Damutze eta promesen garaia, “Luna de Miel”.

Tentsioaren jaistea bereizgarri duen manipulazio fase bat da. Erasotzailea damututa agertzen da, barkamena eskatzen du, eta zin egiten du eraso ez dela berriro gertatuko eta aldatu egingo dela. Honen bidez, emakumeak bere erasotzailearekiko duen mendekotasun emozionala areagotu egiten da, eta erasotzaileak lortzen du emakumeak itxaropena berreskuratzea, bai harremanari dagokionez, bai erasotzaileak aldatzeko duen aukerari dagokionez. Horretaz gain, gertaerak minimizatzeraz, zurrizera edo ukatzera iritsi daiteke emakumea.




Figura 2. Walker-en indarkeriaren zikloa. Iturria:

http://vidasinviolencia.inmujeres.gob.mx/sites/default/files/pictures/img_circuloviolenca.jpg

Denbora pasa ahala, askoz ere bizkorrago eta gordintasun edo intentsitate handiagoz emango da; zikloaren berrekitea emango delarik.

Bestalde, ezin daiteke esan erasotzaile eta biktimaren tipo edo perfil zehatz bat existitzen denik, nahiz eta hainbat ezaugarri komun antzeman daitezkeen.

Perfil biktimologikoari dagokioez, edozein emakume izan daiteke emakumeen aurkako indarkeriaren biktima; hala ere badaude emakume batzuk zaurgarriagoak izango direnak euren egoera pertsonal, sozial, ekonomikoengatik. Indarkeria pairatzen duten emakumeek hurrengo ezaugarri komun hauek dituzte behin indarkeria jasan ondoren (Baca, Echeburúa eta Tamarit, 2006: 177-178.or.):

- **Autoestimua galera:** emakumeak baliorik ez duelaren pentsamendu negatiboak agertzen dira, izan dituen bizipenengatik edo inguratzen den pertsonen eraginengatik. Galera hori erator daiteke jasotako kritikengatik, umiliazioa, axolagabetasuna, besteekin alderatzea, etab.
- **Isolamendua:** biktima bere ingurune sozialetik erabat aldentzen da. Behin indarkeria hasterakoan, biktima laguntza sozialik gabe sentitzen da, bakarrik.

- **Erruduntasun-sentimendua:** emozio negatibo hau dator emakumeak sentitzen duelako bera dela indarkeria jasotzearen errudun. Gizona, biktimak erruduntasun hori sentitzeaz arduratzen da, eta indarkeria zuritzen du esanez emakumeak probokatu duela. Emakumea errudun sentitzen denez, gizonak dioenari men egiten dio eta bere nahietara egokitzen da.
- **Beldurra, antsietatea, estresa:** indarkeria jasan ondoren emakumea beldur bizi batean murgiltzen da, alarma guztiak pizten dira eta ondorio negatibo asko sortzen dira horren eraginez.
- **Segurtasun-eza:** beldurraren sentimenduarekin erabat erlazionatuta doa; ez da seguru sentitzen egoerarekin, ez eta bere buruarekin.
- **Porrot pertsonala:** indarkeria jasan duen biktimak sentitzen du emakume bezala, ama bezala, porrot egin duela, dena gaizki egin duenaren sentsazioa du eta errudun sentitzen da.
- **Kontrol-galera:** indarkeria jasandakoan, emakumeak egoeraren kontrola galtzen du, galduta sentitzen da, egoerari aurre egin ezinik.

Perfil kriminologikoari dagokionez ordea, ez dago erasotzailearen perfil kriminologiko zehatzik. Gizon bat erasotzailea izateak ez du zerikusirik bere egoera ekonomiko, familiar edo profesionalarekin, baizik eta dituen ideiek eta sinesmenek, emakumeen gainetik dagoenaren ideiek hain zuzen ere. Hortaz, botere egoera hori arriskuan ikusten denean ideia eta sinesmen horiek emakumearen aurkako indarkerian bilakatuko dira (Junta de Andalucía, 2016).

Hala eta guztiz ere, badaude erasotzaile izateko arrisku-faktoreak; arrisku-faktoreak delituzko jardueretan inplikatzeko probabilitatea areagotzen duten subjektuaren ezaugarriak edo subjektuaren bizitzaren zirkunstantziak (Hoge, Vincent, Guy eta Redondo, 2015). Hona hemen arrisku-faktore horiek:

- Herstura eta depresioa; gogo-aldartearen desoreka.
- Enpatizatzeko gaitasun txikia.
- Oldarkortasuna.
- Amorrua kontrolatzeko zailtasunak.
- Jeloskortasuna eta jabetza-sentimendua.
- Autoestimu urria.

- Alkoholaren eta substantzien neurri gabeko erabilera.
- Bere arazoen kulpa besteei egozteko joera.
- Emakumeak gizonaren menpe egon behar duela pentsatzea.

Aldi berean, erasotzaileek hurrengo hauek dituzte ezaugarri kasu askotan:

- Bortitzak eta oldarkorrak izaten dira familia-ingurunean, nahiz eta gainerako eremu publikoetan liluratzeko eta limurtzeko ahalmen handia aurkezten duten.
- Erabilitako indarkeria ez dute onartzen, ez dute arazotzat ikusten, eta zurrizko joera dute.
- Segurutasunik ez dute, jeloskorrak izaten dira.
- Jarrera sexistak eta estereotipatuak izaten dituzte.

Laburbilduz, indarkeriaren erabilera emakumeak menpean eta zapalduak izateko tresna da, non indarkeria horren intentsitatea hazkorra eta dinamikoa den. Dinamika horrek izaera ziklikoa du eta denbora igaro ahala, azkarragoa eta intentsuagoa izango da; ondorioz, emakumearengan hainbat faktorek eragingo dute, emakume horiek hainbat ezaugarri komun aurkeztuko dituztelarik. Erasotzaileari dagokionez, ezin da esan perfil kriminologiko konkritu bat dagoenik, baina hala eta guztiz ere badaude zenbait arrisku-faktore indarkeria erabiltzeko probabilitatea areagotzen dutenak.

III. KRIMINOLOGIA ETA BIKTIMOLOGIA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAN

Kriminologiak eta biktimologiak badute zer esana emakumeen aurkako indarkerian. Kriminologia delinkuentzia, arau-hauslea, biktima eta kontrol soziala erlazionatzen dituen diziplinarteko zientzia bat bezala definitzen bada eta biktimologia biktimizazio- eta desbiktimizazio-prozesuak aztertzen dituen diziplinarteko zientzia bezala, bi definizio horiek gainjarri egiten dira eta elementu komunak dituzte. Beraz, esan daiteke biek azterketa eremu berdinak dituztela; eta kriminologiak biktimologiarekin duen harreman horretan ezin da esan erabat diziplina autonomoa denik biktimologia.

1. Kriminologia feminista

Kriminologia Feminista, Kriminologiaren barruko pentsamendu-korronte bat da zeinak enfasia jartzen duen genero-desberdintasunak ikastea eta horiek nola aldatzen duten faktore kriminogenoen efektua. 70.hamarkadan kokatzen da korronte hau, bigarren olatu feministaren fruitua, Kriminologia Klasikoarekin amaitzeko asmoz.

Kriminologiak alde batera utzi izan du emakumeen kriminalitatea, populazio femeninoak burututako jokaera kriminogenoen ehuneko urritik abiatuz. Ondorioz, ikerketa kriminologikoak gizonezkoen ikuspegitik egiten ziren eta lortutako emaitzak egia absolutu eta unibertsaltzat hartzen ziren, emakume eta gizonezkoen arteko desberdintasunak kontuan hartu gabe (Pina Rodríguez, 2016).

Kriminologia Feministaren helburu nagusietako bat beraz, emakumeen delinkuentzia ikusgai bihurtzea da, gizonen delinkuentziaren desberdina dela baieztatuz eta teoria tradizionalak ezin direla osotasunean hedatu azalaraziz.

Kriminologiaren alorrean, feminismoak teoria tradizionalei kritika egiten die emakume delitugilearen eta oro har emakumearen irudi matxista islatzeagatik, emakume otzan, pasibo eta mendekoaren irudia emateagatik. Horrela, Kriminologia Feministak garatu zuen hipotesia honakoa zen: emakumeek delitu gutxiago burutzen badituzte, beharbada generoak, emakumeen ezaugarriek, lagun dezake delituaren kausak aurkitzen.

Delitua maskulintzat hartu zen heinean, emakumeen delinkuentzia anormaltasun indibidualaren zeinu gisa interpretatzen zen, emakumeen sexuaren araberako disfuntzio eta patologien fruitu, edo genero-errol normatiboek zapuztutako sozializazioaren fruitu (Maqueda Abreu, 2014).

Kriminologia Berria (Nueva Criminología) eta “Realismo de Izquierda”-ren sorkuntzekin, emakumeak biktima eta delitugileztatik kontuan hartzen zituzten eztabaidak agerian jarri ziren. “Realismo de Izquierda” krimenaren efektuei eta emakumeen biktimizazioei buruz arduratzen hasi zen, hala nola, etxeko erasoak, bortxaketak eta jazarpen sexuala. Ikerketa-bide honek arazo hauen sentsibilizazioa bultzatu zuen eta politika publikoen garapena eta inplementazioa ere biktimizazio horiek dakarten efektuei buruzko arreta emateko (Dúran Moreno, 2009).

Hortaz, Kriminologia Feministak delinkuentziaren ikerketaren ikuspegiez, biktimizazioaz eta justizia penaleko sistemaz dihardu, ikuspegi kritiko eta feminista erabiliz.

2. Emakumea eta biktimologia

Zentzu hertsian, delituen biktimak aztertzen dituen zientzia biktimologia da. Kriminologia feministak izan duen moduan, ikuspuntu feministak izan du bere eragina biktimologiaren esparruan. Hala ere, ezin da propio biktimologia feminista batetaz hitz egin, baina esan daiteke biktimologiaren alorrean ikuspegi feministak hiru oinarritzko postulatuaren menpe lan egin duela (Varona, de la Cuesta, Mayordomo eta Pérez, 2015: 24.or.):

1. Generozentrismoa arbuizatzea; pertsonak generoagatik ez bereiztea defendatuz.
2. Gizarte patriarkala faktore emakumeen kriminalizazio eta biktimizazioan.
3. Emakumeak botererik gabeko gutxiengoak diren ondorioa era kualitatiboan; diskriminazioa pairatzen dute kontrolerako agenteen aldetik.

2.1. Biktimaren kontzeptua

Tradizionalki, Zigor Zuzenbidean ekintza kriminalaren subjektu pasiboa edo ekintza horren ondorio kaltegarriak bere baitan, bere ondasunetan edo bere eskubideetan pairatzen dituen izango da biktima.

Hortaz, emakumeen aurkako indarkeriaren kasuan subjektu aktiboa gizona izango litzateke, ekintza burutzen duelako, eta subjektu pasiboa berriz, emakumea, ondorioak berak jasaten dituelako.

Biktima kontzeptuak ere badu bere lekua nazioarteko araudian eta barne-araudian. 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuarena kontuan hartuz gero, 2.artikuluan biktima gisa hartzen da bere buruaren edo ondarearen gaineko kalterenbat pairatu duen pertsona fisiko oro, baldin eta lesio fisikoak edo psikikoak, kalte emozionalak edo kalte ekonomikoak eragin baditu delituak.

Nahiz eta nazioarteko araudian eta barne-araudian aurreikusi, biktimologiak araudietan jasotzen diren definizioetatik haratago, oraindik ere zabalagoak diren definizioak aipatu ditu biktimaren kontzeptuaren inguruan.

Biktima kontzeptuaren barnean, bi dimentsio daude biktimologiaren ikuspuntutik:

1. Dimentsio objektiboa: badaude biktima batzuk deliturik gabekoak, Zigor Kodean jokabide horiek ez daudelako tipifikatuak (adibidez, hondamendi naturalak), eta arau-hauslerik gabekoak, arau-hausle horiek ez direlako identifikatuak, atxilotuak, epaituak edo kondenatuak izan. Beraz, dimentsio honetan ez zaio soilik erreferentzia egiten legeak zein baldintza bee behar dituen pertsona bat biktima gisa kontsideratua izateko.
2. Dimentsio subjektiboa: azterketa enpirikoen arabera, egoera traumatiko batzuek ez dute traumarik sortzen, egoera traumatiko hauek gaindituak izaten dira edo biktima batzuk ez dute euren burua biktimatzat kontsideratzen.

Bi dimentsioak erlazionatuz gero, biktimologiaren ikuspuntutik garrantzitsua da biktima kontzeptuak duen gizarte dimentsioa, hau da: aztertzea kulturalki nola sortzen den eta nondik sortzen den biktima izateko beharrezkoa den egoera humilante hori, eta zaurgarritasun, ahultasun eta giza-prekaritate desberdinei ematen zaien erantzun solidarioa (Varona et al., 2015: 31 or.).

Biktimaren kontzeptua zalantzarria izan da; pasiboegia dela esaten da eta beste termino batzuk erabiltzea proposatzen da: kaltetuak edo bizirik irauten dutenak, ematen diren definizio guztietan konponketa, ahulduntzea eta autonomia kontzeptuak izan daitezen oinarriak. Era berean, biktimari erlazionatuta dijoan biktimario kontzeptua ere eztabaidagarria da; biktimarioa kaltea, sufrimendua edo biktimaren pairamena produzitzen duen pertsona da.

2.2. Emakumeak pertsona zaugarri gisa eta jasandako biktimizazioa

Emakumeak jada pertsona zaurgarritzat hartzen badira, emakumeen aurkako indarkeria jasaten dutenak are gehiago. Hortaz, emakume izateak talde zaugarri baten parte izatea dakar; talde zaugarri horiek dira euren adina, arraza, sexua, egoera ekonomiko, egoera

sozial, kultural eta politiko edo sexu-orientazioaren arabera bere eskubideen jardunean oztopo handiagoak aurki ditzaketenak.

Garapenaren Plan Nazionalak (PND) zaugarritasuna definitzen du *“como el resultado de la acumulación de desventajas y una mayor posibilidad de presentar un daño, derivado de un conjunto de causas sociales y de algunas características personales y/o culturales”* eta Comisión de Atención a Grupos Vulnerables-ek (2006-2009) *“persona o grupo que por sus características de desventaja por edad, sexo, estado civil; nivel educativo, origen étnico, situación o condición física y/o mental; requieren de un esfuerzo adicional para incorporarse al desarrollo y a la convivencia.”*

Modu sinplean esanda, zaugarritasuna norbaitek kaltetua izateko duen ezaugarri da eta zaugarritasun hori desberdina izan daiteke:

- Zaugarritasun pertsonala: ezaugarri psikiko eta biologikoei egiten die erreferentzia (adina, sexua, emozio-oreka, sexu-joera, gaixotasunak edo menpekotasunak...).
- Erlaziozko zaugarritasuna: biktima eta arau-hauslearen arteko botere desoreka hartzen da kontuan (bikote, familia).
- Testuinguruaren araberrako zaugarritasuna: biktimizazioa ematen den gizarte habitata edo lekua hartzen da kontuan (etxea, eskola, sarea...).
- Gizartearen araberrako zaugarritasuna: desberdintasun egoeran dauden gutxiengoei dagokie, desberdintasun hori erreala edo juridikoa izan daiteke (emakumeak, homosexualak, ez-gaiak...). Bereziki, biktimizazio arriskuan dauden pertsonak izango dira eta sozialki zaugarriak diren hauek birbiktimizazio errazagoa dute.

Ulertzen da biktimizazioa zaugarritasunaren kausa izan daitekeela; adina, ez-gaitasuna, komunitate indigena edo gutxiengoetako kide izatea, migrazioa eta barne-lekualdaketa, txirotasuna, generoa eta askatasun gabetzea ere kausak diren era berean.

Hain zuzen, Brasiliako Erregelek honakoa diote biktimizazioaren inguruan:

Se considera en condición de vulnerabilidad aquella víctima del delito que tenga una relevante limitación para evitar o mitigar los daños y perjuicios derivados de la infracción penal o de su contacto con el sistema de justicia, o para afrontar los riesgos de sufrir una nueva victimización. La vulnerabilidad puede proceder de sus propias características personales o bien de las circunstancias de la infracción penal. Destacan

a estos efectos, entre otras víctimas, las personas menores de edad, las víctimas de violencia doméstica o intrafamiliar, las víctimas de delitos sexuales, los adultos mayores, así como los familiares de víctimas de muerte violenta. (100 Reglas de Brasilia sobre acceso a la Justicia de las personas en condición de vulnerabilidad; I. Kapitulua II. Saila 5. Artikulua).

Lehen aipatu bezala, biktimologiak biktimizazio-prozesuak aztertzen ditu, eta hiru dira bereizten diren biktimizazio-prozesuak biktimizazio horren iturria zein den (nork sortzen duen) eta sufritzen duena nor denaren arabera:

- Lehen mailako biktimizazioa: zuzenean delitutik eratortzen direnak edo indarkeriazko gertaeretatik. Lehen mailako biktima motei dagokionez:
- Bigarren mailako biktimizazioa: biktinek sistema juridiko, osasun-zerbitzu, agente publiko eta beste zenbait eragile sozialekin duten erlazioetatik eratortzen direnak.
- Hirugarren mailako biktimizazioa: zigorren kostu gehigarrietatik eratortzen direnak. Zigorra jaso duenak edo hirugarren batzuek jaso dezakete biktimizazio hau.

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktinek jasaten dute biktimizazio nabarmenetako bat eta emakumeak pertsona zaurgarritzat hartzen diren heinean, argia da zaurgarritasuna eta biktimizazioa eskutik doazela.

Emakumeak talde ezaugarritzat hartzeak, inplizituko berekin dakar beti zaurgarriak izango direnaren eta babes berezia behar izango dutenaren ideia; emakumearen kondizioa ez baita amaituko den zerbait, emakumea beti izango da emakume. Horrek, ikuspuntu matxista indartzen du, zeren eta beti ikusiko dira menpeko izaki modura, erabakiak hartzeko edota hainbat ekintza egiteko ez-gai modura, soilik emakume izateagatik.

Zaurgarritasunari jarraiki, emakumeen talde horretan hainbat identitatek (generoa, etnia, adina, klase soziala, maila sozio-ekonomikoa...) ezaugarritzen dute emakume bakoitza, zeinak harreman-sozial, historia eta botere-egituretan duten jatorria. Ondorioz, gizabanakoak (emakumeak) aldi berean komunitate bat baino gehiagoren kide dira eta, zapalkuntza eta pribilegioak esperimenta ditzakete.

Honen aurrean, analisi-intersekzionala tresna egokia da, helburu baitu identitate desberdin horiek ezagutaraztea, identitateen konbinazioaren ondorio gisa gertatzen diren diskriminazio-mota desberdinak eta desabantailak adieraztea. Era berean, intersekzionalitateak bilatzen du arrazismoak, patriarkatuak, klase-zapalkuntzak eta beste diskriminazio-sistema batzuek emakumeen posizio erlatiboak egituratzen dituzten desberdintasunak sortzen dituzten formei ekitea (Asociación para los Derechos de la Mujer y el Desarrollo, 2004). Esaterako, emakume beltzaren txiro baten esperientzia eta emakume txuri aberats batena kualitatiboki desberdina da, nahiz eta biak emakumeen taldearen baitan egon; emakume horiek izango dituzten aukera-egoerak eta eskubideetarako sarbidea desberdina izango da.

“El análisis interseccional plantea que no debemos entender la combinación de identidades como una suma que incrementa la propia carga sino como una que produce experiencias sustantivamente diferentes” (Asociación para los Derechos de la Mujer y el Desarrollo, 2004: 2 or.). Beste modu batera esanda, helburua ez da talde bat beste bat baino biktimizatuagoa dagoen erakustea, baizik eta desberdintasun eta diskriminazioak gainditu ahal izateko antzekotasun adierazgarriak aurkitzea, eta mundu guztiak bere giza eskubideak gozatu ahal izateko beharrezko baldintzak ezartzea.

Emakumeak biktimak diren modu berean, etxean gauzatutako indarkeriak berekin dakar seme-alabak ere biktimak izatea.

Hurtzarotan eragin negatiboak dituen iturria da emakumeen aurkako indarkeria, edozein izanda ere haurren adina: hainbat arazo fisiko (loaren eta elikaduraren asaldurak, gaitasun motoreen murrizketa...), asaldura emozional larriak (antsietatea, amorrua, depresioa, autoestimu baxua, estres postraumatikoaren nahastea...), arazo kognitiboak (lengoiaren atzerapena, eskola-errendimendu urria...), jokabide arazoak (gaitasun sozial urriak, oldarkortasuna, arreta falta, delinkuentzia, menpekotasunak...) (Varona et al., 2015: 189 or.). Horregatik, haurren tratu txarren tipologiaren barnean sartzen da adingabeak emakumeen aurkako indarkeria pairatze hutsa.

Haur horiengan emakumeen aurkako indarkeriak izango dituen ondorioak eta inpaktua, haurren baliabide emozional eta pertsonalen araberakoa izango da. Haurren lehengoratzeko beharrezkoak dira erakundeek erantzun eraginkorrak ematea hurrei arreta emateko, laguntza

soziala eta familiarra, bai eta emakume zein hurrekin jardun behar duten profesionalen formazioa.

2.3. Biktima-biktimarioa

Hans Von Hentig (1948, Baca et al., 2006an aipatua: 37 or.) kriminologoak bikote kriminala deituriko kontzeptua garatu zuen legezkontrako gertaera jakin bateko biktima eta biktimarioaren arteko erlazioaz hitz egiteko. Biktima-biktimario eskema hori, ikuspuntu kriminologiko batetik nahiko sinplista da. Gertaeraren erantzukizunaren pisua biktimarioaren gain jartzen du. Kriminologiak arau-hauslea eta biktima aztergai dituen heinean, objektibotasunez, biak hartu behar ditu kontuan.

Egia da arau-hausleak legeak aurreikusitako delitu bat gauzatu duela, portaera horren erantzukizun zuzena ezarri behar zaiola eta ondorio juridiko-penal bat ezarri behar zaiola bergizarteratzeko helburuarekin. Biktimari berriz, arreta eta babes osoa eta kalteak konpontzeko baliabide guztiak eskaini eta eman behar zaizkio.

Ikuspegi juridiko-penal batetik garrantzia duena burututako egitateak dira eta pertsona horrengan jartzen da erantzukizuna; kriminologiak aldiz, garrantzia ematen die pertsona arau bat haustera eraman duten zirkunstantziei, hau da, oinarritik hasten da. Zirkunstantzia horietan eragile askok jarduten dute pertsonarengan lehenengo momentutik, hala nola, familia, eskola, lagunak, ingurune soziala, erlijioa, kultura, ideiak, ohiturak, sinesmenak... gizartea funtzionatzea ahalbidetzen duten elementuak, oro har. Beraz, egitate deliktiboaren pisu guztia arau-hauslearen gain jartzea akatsa izan daiteke.

Gainera, arau-hausleari ezartzen zaion delitugilearen etiketak badu kutsu negatiboa. Desbideratzearen soziologiako teoria mikroetatik dator Howard Becker-ek garatutako etiketatuaren teoria; teoria honen arabera, delitua burutu duen horri automatikoki gizarteak etiketa abstraktu bat txertatzen dio ("delitugilearena"), eta etiketa horrek orokorrean sozialki baztertzeko arriskua dakarren oihartzuna sortzen du (Becker, 2009: 28-29 or.).

Delitua eraikuntza sozial bat da espazio eta denbora zehatz batean, kulturaren arabera eraikitzen dena. Hortaz, delitua burutzen duena gizarteak ezarritako arauetatik kanpo geratzen da; eta hori ez gertatzeko, kontrol sozialak paper garrantzitsua jokatzen du.

Kontrol soziala da indibiduoek ezarritako arauak betetzea baimentzen duen mekanismo-multzoa. Kontrol hori mekanismo desberdinen bitartez burutzen da, kontrol sozial formala eta informalarri bide emanez (Ortiz, 2015):

- Formala: Estatuak kontuan hartzen dituen mekanismoak kontrol soziala ezartzeko; hala nola, polizia, Justizia-Administrazioa, Espetxe-erakundeak, Zigor Kodea. Hauen funtzioa da arauaren betearazpena bermatzea, eta hala ez denean zigorrak ezartzea. Formala, kontrolerako profesionalizatuta dauden erakundeek bideratzen dute.
- Informala: indibiduoak jokaera-jarraibideak barneratzea ahalbidetzen duten instantziei egiten zaio erreferentzia; familiak, eskolak, lan-eremuak, lagunek... burutzen duten gizarteratze-prozesu bat da. Informala, beraz, ez da profesionalizatua.

Bi kontrolen arteko desberdintasuna hobeto ulertzeko, hona hemen Redondo eta Garridok (2013) proposatutako adibidea:

Cuando el vendedor de unos grandes almacenes actúa contra el intento de hurto por parte de un cliente, está ejerciendo, según la definición propuesta, un control informal, mientras que la actuación del vigilante jurado en el mismo caso, formaría parte del control formal. Mientras que el primero está contratado para vender productos, el segundo lo está específicamente para impedir las sustracciones y los robos. Sin embargo, ambos trabajadores son susceptibles de contribuir a evitar los hurtos en la tienda. (68 or.)

Ondorioz, ez da berezko ekintza kriminala existitzen; nahiz eta oso desbideratua kontsideratzen den giza-portaera egin, ez da delitua izango. Soilik delitua izango da baldin eta kontrol formalaren instantzien jarduerari jarraiki; esaterako, norbaitek delituren bat burutzen badu eta ez bazaio horregatik zigorrik ezartzen, ezin zaio delitugile bezala kalifikatu.

Hortaz, biktima-biktimario eskema horretan garrantzia duena, biktimizazio-maila da biktimari dagokionez, eta biktimarioari dagokionez berriz, erantzukizunaren edo arduraren pisua da, hau da, delituzko ekintzaren ardura-maila. Pertsona batek delitua aurrera eraman duen heinean, kontrol formal zein informal horiek beren funtzioa ez dute egokitasunez bete: zigor-sistemak ez du aurre zaintzaren helburua lortu, hezkuntzak ez ditu elkarbizitza egoki bat eramateko balioak esleitu... Hau, betiere delitua burutu duenari erantzukizuna edo ardura kendu gabe.

IV. ORDENAMENDU JURIDIKOAK DITUEN TRESNAK EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI AURRE EGITEKO

1. Zigor Zuzenbidea, Zigor Kodea

Zigor Zuzenbidea definitzerako orduan bereizketa nagusi bat egiten da: bereizketa zentzu objektiboan eta zentzu subjektiboan. Zentzu objektiboan, arau penalen multzoa da Zigor Zuzenbidea; eta zentzu subjektiboan berriz, Zigor Zuzenbideak erreferentzia egiten dio estatuak arau penalak sortzeko eta horiek aplikatzeko duen eskubideari, “*ius puniendi*” (Landa, 2003: 34-35 or.).

Beraz, Zigor Zuzenbidea honela defini daiteke: arau eta printzipio juridikoen multzo bat delituak gaitzesten eta debekatzen dituen, eta delituari, ondorio juridiko bezala, zigorrak eta segurtasun neurriak lotzen dizkiona.

Argi dago elkarbizitza posible izan dadin portaera batzuk ez direla onartuak gizartearen aldetik, desbideratuak jotzen direnak. Desbideratzearen soziologiari jarraiki, desbideratzearen bi definizio dira emankorrenak, bi ikuspuntu desberdinetatik.

Ikuspuntu normatibistari dagokionez, desbideratzea arau baten urraketa bezala definitzen da; hau da, norma sozialaren aurka doana. Norma sozial horiek ez dira zertan soilik legeak izan, ohiturak eta kulturalki hegemonikoak direnak ere izan daitezke. Ondorioz, arau sozialen urraketa desbideratzea izango litzake; eta arau baten kontra ez doana berriz, ez da desbideratzea izango. Baina hala ere, nahiz eta zigorrik edo gaitzespenik ez jaso burututako ekintza desbideratua kontsideratuko da.

Ikuspuntu errektibistari dagokionez, desbideratzearen ezaugarri gakoa portaera, pertsona eta baldintzen erreakzio negatiboen kasu erreal eta konkretuetan aurki daiteke. Garrantzitsuena ez da ekintza, baizik eta erreakzioa; ondorioz, desbideratzea penalizazio soziala duena izango da. Beraz, desbideratzea izango da erreakzio negatiboa dagoenean sortzen dena; hau da, gizarte batek duen erreakzioak definituko du desbideratzea.

Onartezinak diren portaera edo ekintza horien aurrean, Zigor Zuzenbideak horiek ekiditeko papera jokatzen du, ordena mantentzeko helburua izanez. Ordena hori mantentzeko, arau baten urrapenaren ondoan, zigor bat edo ondorio kaltegarri bat ezartzen du. Argi dago beraz, Zigor Zuzenbideak gizarte kontrolerako tresna gisa jarduten duela; hala eta guztiz ere, ez da gizarte kontrolerako tresna bakarra: familia, eskola, lagunak... beste gizarte kontrol tresnatzat har daitezke (Landa, 2003: 31 or.). Gizarte kontrolerako tresna eraginkorrena ere ez dela esan behar da.

Zigor Zuzenbideak ez du edozein arau-hauste barneratzen, Zigor Kodeak larrienak diren portaerak zigortzen dituelako; Zigor Kodea Zigor Zuzenbideak duen tresna da delituak eta haren ondorio juridikoak tipifikatzeko. Delitua arau bat hausten duen portaera bat izanik, ondorio gisa zigor bat ezartzen da. Zein diren larrienak identifikatzea berriz zaila da; nahiz eta badauden delitu batzuk, inork zalantzan jartzen ez dituenak.

Zigor Zuzenbide modernoan, genero-indarkeriaren ezagutzak ez luke soilik ekarri behar hainbat tipo penal espezifikoen existentzia, baizik eta fenomenoaren ulermenerako norabide bat suposatu beharko luke bi premisetatik abiatuz (Bodelón, 2012: 17 or.):

1. Indarkeria emakumeen aurkako diskriminazio sozialaren, egitura sozial desberdin eta zapaltzailearen adierazpena dela ulertzea.
2. Kontzeptuak baimendu behar du emakumeen aurkako indarkeriak hainbat adierazpen dituela azaltzea, nahiz eta fenomeno bakarra izan.

Botere Judizialaren Lege Organikoak, 87ter artikuluan dio emakumeen aurkako indarkeriaren epaitegien ardura izango dela *“erantzukizun penala eskatzeko prozesuen instrukzioa, Zigor Kodean jasotako delitu hauei dagokienez: giza-hilketa, abortua, lesioak, fetuari eragindako lesioak, askatasunaren kontrako delituak, osotasun moralaren kontrako delituak, sexu-askatasun eta -ukigabetasunaren kontrakoak edo indarkeriaz edo larderiez egindako beste edozein delitu, baldin eta egilearen emazte denaren edo izan denaren kontra edo —nahiz elkarrekin ez bizi— antzeko afektibitate-harreman baten ondorioz egilearekin harremana duen edo izan duen emakumearen kontra egin badira; eta, orobat, egilearen edo haren emaztearen edo bizikidearen ondorengo kontrako delituak edo egilearekin bizi diren edo egilearen emaztearen edo bizikidearen aginte, tutoretza, kuratela, harrera edo egitatezko zaintzaren mende dauden adingabeen edo ezgaien kontrako delituak, baldin eta genero-indarkeriazko egintza bat ere gertatu bada.”* Prozedura Kriminalaren Legean ere jasotzen

da, 14.artikuluan hain zuzen, zein eskumena izango duten emakumeen aurkako indarkeriaren epaitegiek.

Horrenbestez, artikulua horiek kontuan hartuta, genero-indarkeria Zigor Kodeko II. Liburuan tipifikatutako hurrengo delituek osatuta egongo litzateke:

- I. Titulua: Giza-hilketa eta giza-hilketaren formak
- II. Titulua: Abortua
- III. Titulua: Lesioak
- IV. Titulua: Fetuari eragindako lesioak
- VI. Titulua: Askatasunaren aurkako delituak
- VII. Titulua: Torturak eta osotasun moralaren aurkako beste delituak
- VIII. Titulua: Sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituak
- Baita, indarkeriaz edo larderiez burututako beste edozein delitu

1/2004 Lege Organikoa, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa, erregimen berria barneratu zuen genero-indarkeria kasuetarako. Horrela, zigorraren astuntzea ez da aplikatzen ofentsagile (gizona) eta ofendituaren (emakumea) sexuarekin lotuta, baizik eta haren aplikazioa genero-indarkeria benetan eman denaren menpe dago, hau da, testuinguru matxista batean. (Muñoz, 2015: 177-179 or.).

Zigor Kodeko 153.artikulua legegilearen erantzunetako bat da genero-indarkeriaren fenomenorako (Silva, 2015: 89 or.). ZK 153.1.artikuluan jasotako genero-indarkeriaren delitua subjektu aktibo gizona eta subjektu pasibo emakumearen arteko harremanak edo izandako harremanak ezaugarritzen du. Era berean, 153.1.artikuluak 3 portaera tipiko aurreikusten ditu: urripen fisikoa, 147. artikuluko 2. zenbakian zehaztutako larritasun txikiagoko lesioa eta kolpe edo egitezko tratua txarra ematea lesiorik eragin gabe; bigarren supostua izanik aldatetaren berrikuntza (González, 2015: 506-507 or.).

Hortaz, Zigor Kodearen arabera, genero-indarkeria delitua gauzatzeko beharrezko baldintzak honakoak izango lirateke:

1. Indarkeriazko egintza oro gauzatzea, fisikoa nahiz psikologikoa, baita sexu-askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo nahierara askatasunaz gabetzea.

2. Biktima egilearen emaztea izatea edo izana, edo berarekin antzeko maitasun-harremanen bidez loturik egotea edo egon bada emakumea, elkarrekin bizi ez arren.
3. Indarkeria fisiko zein psikologikoak adieraztea bereizkeria, desberdintasun-egoera eta gizonek emakumeei ezartzen dizkieten botere-harremana.

Hala ere, pertsonaren aurkako edozein tipo deliktibo izan daiteke genero-indarkeria, aurrez aipatutako hiru baldintza horiek betetzen badira.

Bigarren baldintza kontuan hartuz gero, subjektu aktibo eta pasiboaren artean maitasun-harremanik ez dagoen edo egon ez den kasuetan ezin da portaera bat emakumeen aurkako indarkeriatzat hartu. Hortaz, esan daiteke, Zigor Kodeak ez duela barnebiltzen osotasunean emakumeen aurkako indarkeriak suposatzen dituen indarkeriazko ekintza oro.

Bestalde, 1/2015 Lege Organikoak, martxoaren 30ekoa, 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duena, azaroaren 23koa, Zigor Kodearena, hainbat aldaketa ekarri ditu genero-indarkeriaren delituari dagokionez.

1/2015 Lege Organikoak, 22.artikuluan aurreikusitako 4.inguruabarra aldatzen du: *“Delitu egitea arrazakeria nahiz zio antisemitengatik edo bereizkeriako beste mota batengatik, baldin eta hori biktimaren ideologia, erlijio edo sinesmen, etnia, arraza, nazio, sexu, sexu-orientazio zein sexu-identitate, **genero**, gaixotasun edo desgaitasunari buruzkoa bada.”*

ZK 22.artikuluko 4.inguruabarrak, babes penala ematen die ezaugarri jakin batzuegatik identifikatzen diren hainbat giza-taldee, aurreiritzi eta tratu desberdinen objektu izan daitezkeelako. 1/2015 Lege Organikoak artikuluari ekarri dion aldaketarekin lortu nahi dena da berdintasun-printzipioari babes handiagoa ematea, giza-duintasunaren aurka doazen jokabide horien aurrean. Nahiz eta aurreko erregulazioan barneratu biktimaren sexuari arreta ipintzen zion arrazoi diskriminatzailea, genero kontzeptua txertatzeak emakumeen eskubideen babesean aurrera egin nahi izan du. Hortaz, generoagatiko astungarriak jokabide matxistak hartuko lituzke kontuan, hau da, gizonek emakumeen aurka aurrera eramandako jokabide, kontzienteak edo ez, gizonaren nagusitasuna eta emakumea menpeko gizaki bezala adierazteko asmoz. Ondorioz, aldaketaren ondoren gizonak bere bikote edo bikote-ohiari eragindako egitate zigorgarriak 22.4.artikuluaren bidez astunduko dira eta ez 23.artikuluari jarraiki (senidetasun-inguruabar mistoa), zeina aldatua izan beharko lukeen erregulazioen

bikoiztasuna ekiditeko. Hala ere, generoagatiko astungarriarekin ez da emakumeen eskubideen babesa areagotzen kriminalitate matxistaren aurrean, aurreko legearekin babes berdina baitzuen 23.artikuluaren. (González, 2015: 119-122 or.).

ZK 22.4.artikuluaren “genero” kontzeptua barneratzen den moduan, ZK 510.artikuluaren ere barneratzen da: *“fomenten, promuevan o inciten directa o indirectamente al odio, hostilidad, discriminación o violencia contra un grupo, una parte del mismo o contra una persona determinada por razón de su pertenencia a aquél, por motivos racistas, antisemitas u otros referentes a la ideología, religión o creencias, situación familiar, la pertenencia de sus miembros a una etnia, raza o nación, su origen nacional, su sexo, orientación o identidad sexual, por razones de género, enfermedad o discapacidad.”* Beraz, generoagatiko arrazoiak gehitzen dira ZK 510.artikuluarekin eta ZK 22.4.artikuluko astungarriarekin koherentzian; eta bere konfiguraziorako biktimaren genero-identitatea diskriminatzeko asmoa egon behar da (Quintero Olivares, 2015: 738 or.).

Badirudi ZK 22.4.artikuluaren aldaketak ZK 510.artikuluaren aldaketa ekarri duela, eta ondorioz, genero kontzeptuak berezko lekua hartu du; izan ere, kontuan hartu behar da generoa “sexu” kontzeptutik bereizi behar dela. Aldaketa hauekin lortu nahi izan dena da delituen emakumezko biktimak gehiago babesteko helburu duten tipo deliktibo berriak sortzea; baina aldaketen zergatia zalantzarria da, aurrez bazeudelako beste tipo penal batzuk artikulu horietan aipatzen diren pertsona edo talde zaurgarriak babesteko helburuarekin.

Hortaz, generoari buruzko erreferentziaren presentzia ZK 22.4.artikuluaren ikusita, aztertu behar dena da ea ZK 510.artikuluaren ere generoaren presentzia hori justifikatua dagoen edo legegilearen jardura berri bat izan den. Horrela, generoagatiko arrazoa zergatik txertatu den aztertu beharko da: txertatu bada matxismoan oinarritutako gorrotoagatik eta ez baditu bestelako supostuetako hutsuneak betetzen, generoaren presentzia ez legoke justifikatua; zeren eta, 2015ko erreforma aurretik aurreikusten zen sexuagatiko arrazoa aplikagarria izango litzateke.

2. Politika publikoak

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko beste tresnetako bat da politika publikoen garapena. Politika publikoek arazo sozial bati erantzuna emateko balio dute, bai eta arazoari atxikita doazen taldeen beharrei erantzuteko. Hala ere, ez dago politika publikoaren kontzeptu bakar eta unibertsalik; hortaz, hurrengo taulan jasotzen den moduan, “politika publiko” terminoaren interpretazio anitz eta desberdinak eman dira:

Taula 2

Politika publikoaren definizioak

Autor	Definición
Harol D. Lasswell Abraham Kaplan (1950)	<i>“Un programa proyectado de valores, fines y prácticas”.</i>
Albert Somit Joseph Tanenhaus (1967)	<i>“La totalidad de la acción gubernamental”.</i>
Hugh Heclo (1972)	<i>“Curso de acción adelantado bajo la autoridad de los Gobiernos”.</i>
Hugh Heclo Aaron Wildavsky (1974)	<i>“Una acción gubernamental dirigida al logro de objetivos fuera de ella misma”.</i>
James E. Anderson (1975)	<i>“Una secuencia intencionada de acción seguida por un actor o conjunto de actores a la hora de tratar con un asunto que les afecta (...) y son aquellas desarrolladas por cuerpos gubernamentales y sus funcionarios”.</i>
Laurence E. Lynn (1980)	<i>“Un conjunto específico de acciones de gobierno que producirán, por su diseño o por otras razones, una clase particular de efectos”.</i>

William Dunn (1981)	<i>Las “políticas públicas son una larga serie de opciones más o menos relacionadas (incluyendo decisiones de no actuar) hechas por cuerpos y oficiales gubernamentales”.</i>
Guy Peters (1986)	<i>“La suma de las actividades de los gobiernos, bien por medio de una actuación directa, bien por medio de agentes, en la medida en que tenga una influencia sobre la vida de los ciudadanos”.</i>
Thomas R. Dye (1987)	<i>“Las políticas públicas son todo aquello que los gobiernos eligen hacer o no hacer”.</i>
Yves Mény Jean-Claude Thoenig (1992)	<i>“Programa de acción gubernamental en un sector de la sociedad o en un espacio geográfico”.</i>
Jean-Claude Thoenig (1997)	<i>“El trabajo de las autoridades investidas de legitimidad pública gubernamental y que abarca múltiples aspectos, que van desde la definición y selección de prioridades de intervención hasta la toma de decisiones, su administración y evaluación”.</i>
Pierre Muller Yves Surel (1998)	<i>“Proceso por el cual se elaboran y se implementan programas de acción pública, es decir dispositivos político-</i>

	<i>administrativos coordinados, en principio, alrededor de objetivos explícitos”.</i>
Michael K. Kraft Scott R. Furlong (2007)	<i>“Curso de acción o inacción gubernamental en respuesta a problemas públicos”.</i>
Peter Knoepfel Corinne Larrue Frédéric Varone Miriam Hinojosa (2007)	<i>“Una concatenación de decisiones o de acciones, intencionalmente coherentes, tomadas por diferentes actores, públicos y ocasionalmente privados —cuyos recursos, nexos institucionales e intereses varían—, a fin de resolver de manera puntual un problema políticamente definido como colectivo”.</i>

Iturria: “*Teoría y práctica de las políticas públicas*”, Albadalejo Pastor, G., 2014, 20 or., Valencia: Tirant lo blanch.

Nahiz eta kontzeptuaren definizio aniztasuna egon, autore gehienek hainbat elementu adierazten dituzte amankomunak direnak euren definizioetan. Hurrengo hauek dira elementu amankomun horiek:

- a) **Politika publikoa sortu eta legitimatzen duten aktore instituzionalen esistentzia.**
Politika publikoa ahalmen formala duen gobernuaren aldeko autoritatearen bidez sortzen da. Era berean, politika igortzen duten aktoreek parte-hartu behar dute sistema politiko-administratiboan. Hala ere, kontuan hartu behar da formulazio-, inplementazio- edota ebaluazio-prozesuetan parte-hartzera iritsi daitezkeela gizarteko beste hainbat erakunde; hala nola, elkarteak, gobernu kanpoko erakundeak, enpresak.
- b) **Erabakiak hartzea, bere betearazpenerako beharrezko neurriekin batera.**
Politika publiko batek berekin darama erabaki-multzo bat hartu beharra, arrazoizkoak eta programatuak: balio, xede, helburu, jarduera-neurri eta epe motzera, ertainera

edota luzerako baliabideen hautaketa, politikoki interes publiko bezala identifikatutako arazoei erantzutera zuzentzen direnak. Erabakiak norik hartu behar dituenari dagokionez, erabaki horiek aktore instituzionalengatik formalizatuak egon behar dira, nahiz eta ez den ahaztu behar prozesu hauetan ingurune politiko-administratibotik kanpo dauden beste hainbat aktorek parte-hartu dezaketela, horiek konpondu nahi den arazoan interesa dutelako edo kaltetuak direlako. Bestalde, Mariano Baena del Alcázar-en (2000) arabera, “no hay política pública propiamente hablando si no hay medidas de ejecución” (262 or.). Ondorioztatzen da, erabakiak jarduera-neurriekin batera joan behar direla politika publiko bat egiteko.

- c) **Gobernuko agendan sartutako arazoa konpontzeko asmoa.** Politika publiko bat martxan jartzeko edo harekin jarraitzeko autoritate politiko-administratiboaren arrazoi nagusia da arreta pizten duen arazo baten esistentzia edo iraunkortasuna. Hori ikusita, erabakitzen da arazoa gobernuko agendan sartzea haren gain eragiteko asmoarekin, arazoa konpondu ahal izateko.

- d) **Talde zehatzen portaerak edo jokaerak aldatu edo orientatzeko asmoa.** “Toda política pública busca modificar u orientar la conducta de grupos de población específicos (target groups, o grupos-objetivo), ya sea de manera directa o actuando sobre el entorno de tales actores” (Subirats, Knoepfel, Larrue eta Varone, 2008: 40 or.). Horregatik, politiken zati bat ekintza formal edo produktu (outputs) batzuekin batera joan ohi dira, zuzentzen direnak “a los grupos sociales que, se supone, originan el problema colectivo a resolver (grupos objetivo), en el interés de grupos sociales que padecen los efectos negativos del problema en cuestión (beneficiarios finales)” (Knoepfel, Larrue, Varone eta Hinojosa, 2007: 6-29 or.).

- e) **Inpaktuen emaitza sistema sozial eta politikoan.** Politika publikoek inpaktuak edo efektuak eragiten dituzte sistema sozial eta politikoan, zeren eta “toda política pública se realiza en el contexto de un sistema político abierto” (Baena del Alcázar, 2000: 263 or.), ezaugarri duena eremu politiko-administratiboaren eta gizartearen arteko erlazio jarraituak.

Politika publikoa ere interpreta daiteke prozesu bat bezala; hau da, une jakin batean kolektibo modura politikoki definitutako arazo bat konpontzera zuzentzen den ekintzen fluxu jarraitua.

Ikuspegi horretatik abiatuz, politika publikoa ekintzen-sistema dinamiko bezala sortzen da, mugimendu iraunkorrekoa, testuinguru sozio-politiko zehatz batean gauzatzen dena. Honen harira, hainbat autorek denboran zehar analisi-modelo desberdinak garatu dituzte, faseetan oinarritutako eskemak sortuz, politika publikoen ikerketa logiko eta arrazionalera gerturatzeko.

“Politika publikoen zikloa” deituriko terminoa izan da onarpen handiena lortu duena. Ziklo hau bost faseetan bereizten da: agendaren eraketa (gobernuko agendan arazoa barneratzeko prozesua), formulazioa (erabakiak hartzearen prozesua, zeinak barnehartzen ditu konponbide-alternatiben bilaketa eta hautaketa arazoari aurre egiteko eta konpontzeko), inplementazioa (politika publikoa praktikan jartzearen prozesua), ebaluazioa (efikazia, efizientzia eta eraginkortasunaren egiaztapen prozesua) eta amaiera (politikaren hainbat ezaugarrien konklusioen prozesua).

Taula 3

Politika publikoen zikloa

Fase o etapa	Productos	Variables analíticas
Formación de la agenda	Definición del problema público	<ul style="list-style-type: none"> - Intensidad (problema serio o pseudoproblema) - Perímetro (problema delimitado/concentrado, problema carente de fronteras/difuso, problema de evolución rápida y problema de evolución lenta) - Novedad (problema nuevo o crónico) - Urgencia (problema urgente o no urgente) - Causas que producen el problema (problema monocausal o multicausal) - Interdependencia (problema

		aislado o yuxtapuesto)–
Formulación	Programa político-administrativo (PPA)	<ul style="list-style-type: none"> - Detalle o concreción (detallado o marco) - Niveles de gobierno (centralizado o descentralizado) - Contenido (sustancial o institucional)
	Acuerdo político-administrativo (APA)	<ul style="list-style-type: none"> - Número y tipo de actores (monoactoral o pluriactoral/actores públicos y/o privados) - Grado de coordinación horizontal (integrado o fragmentado) - Grado de coordinación vertical (integrado o atomizado) - Grado de centralidad de los actores clave (centralizado o igualitario) - Grado de politización (politizado o burocrático)
Implementación	Planes de acción	<ul style="list-style-type: none"> - Grado de formalidad (explícito o implícito) - Grado de apertura (abierto o cerrado) - Grado de discriminación (embudo o regadera) - Grado de (re)estructuración (selectivo o no selectivo) - Nivel de claridad en la asignación de recursos

	Actos de implementación	<ul style="list-style-type: none"> - Perímetro - Contenido institucional (<i>outputs</i> con mayor o menor contenido institucional) - Formalidad de las acciones (actos formales o informales) - Carácter final de las acciones (actos intermedios o finales) - Coherencia (acciones con mayor o menor coherencia) - Coordinación con los actos de otras políticas
Evaluación	Enunciados evaluativos de los efectos de las políticas públicas	<ul style="list-style-type: none"> - Criterios de evaluación de los efectos (efectividad, eficacia y eficiencia) - Momento de la evaluación (evaluación <i>ex ante</i>, evaluación durante el proceso o evaluación <i>ex post</i>) - Oficialidad de la evaluación (enunciados formales o informales) - Finalidad (enunciados conclusivos o formativos)

Iturria: “*Teoría y práctica de las políticas públicas*”, Albadalejo Pastor, G., 2014, 41 or., Valencia: Tirant lo blanch.

1) FASEA: AGENDAREN ERAKETA

Agenda honek agenda politikoari egiten dio erreferentzia, hau da, politika publiko moduan konponbide politikoa exijitzen duten edo konponbidea eman beharko litzaieken arazoerrenda bati.

Hiru ezaugarri desberdinek egiten dute arazo bat agenda politikoan sartzea: “(1) el estado de la opinión pública y su relación con la acción política, (2) la existencia de soluciones al problema de que se trate y (3) los propios atributos del problema” (Kingdon, 1995).

2) FASEA: FORMULAZIOA

Fase honetan, arazo publikoa eta haren konponbidearen helburua jarduera programa batekin lotzen da. Formulazioak barnehartzen du erabaki politikoaren programazioa eta araudia, erregela formal eta informal berrien ezarpena, negoziaketen emaitzak eta aktoreen akordioak.

3) FASEA: INPLEMENTAZIOA

Fase honetan, aurreikusitako asmoen marko batetik abiatuz, jarduerak sortzen dira aurreikusitako helburuak lortzeko xedearekin.

4) FASEA: EBALUAZIOA

Politika publiko baten helburua arazo publiko bat konpontzea izanik, fase honetan lortu nahi dena da botere publikoek ekindako neurriek eragindako efektuak ezagutzea.

La evaluación de una política pública pretende examinar empíricamente la validez del modelo causal en el que ésta se fundamentó en su proceso de elaboración. En consecuencia, lo que buscamos es saber si la ‘teoría de la acción’ en la que se basaba la política tenía fundamento, y el grado de aplicación realmente alcanzado. (Subirats, et al., 2010: 211 or.)

La evaluación de las políticas públicas se concibe como un proceso institucional, que es conveniente adoptar en todas las fases del ciclo de intervención pública, aplicando métodos sistemáticos y rigurosos de recogida y análisis de información, con el énfasis puesto en la comprensión integral de los impactos, resultados, procesos, teorías y contexto de las intervenciones públicas en relación con los objetivos trazados y su revisión, a fin de servir al aprendizaje y a la mejora gerencial de los servicios públicos, como a la estrategia sobre decisiones futuras, fundamentándose este proceso sobre el juicio de valor de la acción pública evaluada y basándose en criterios establecidos por los principales actores implicados, con la finalidad última de servir a la ciudadanía. (AEVAL, 2010)

Bestalde, ebaluazioak bost fase ditu (AEVAL, 2009): aginduaren analisia; ebaluazioaren diseinua eta plangintza; betearazpena; emaitzak eta komunikazioa eta ebaluazioaren erabilera.

5) FASEA: AMAIERA

Hauek dira amaiera deituriko fasearen inguruan eman diren definizio desberdinak:

- “Una decisión tomada por los legisladores y otras autoridades facultadas por un mandato oficial para poner fin a una disposición previamente establecida” (Lasswell, 1971: 79 or.).
- “El proceso de ajuste de políticas y programas que se han convertido en disfuncionales, redundantes, obsoletos y/o innecesarios” (Brewer, 1974: 240 or.).
- “La finalización o cese deliberado de funciones específicas, programas, políticas u organizaciones gubernamentales” (DeLeon, 1978a: 370 or.).
- “Un comportamiento premeditado con la intención de poner fin a la existencia de una política u organización particular” (Daniels, 2008: 1499 or.).

Politika baten ebaluagarritasunaren ebaluazioak helburu du politika bat ebaluagarria den ala ez galderari erantzutea. Politika publiko bat ebaluatu ahal izateko beharrezkoa da ebaluazioaren aurretik baldintza batzuk betetzea:

1) Politikak helburu zehatzak eta neurgarriak izan behar ditu, efektuei buruz oro har eta zehazki esperotako inpaktu eta emaitzei buruz.

2) Esku-hartze modelo bat, esku-hartze horretatik efektu jakin batzuk lortuz.

3) Baliabide eta jardueren multzoa, esku-hartzea sortzen dutenak.

Hauek dira egin beharreko galderetako batzuk politika publiko baten ebaluagarritasuna ziurtatzeko:

¿Está bien definida la política? ¿Están bien definidos los efectos esperados? ¿Existen indicadores de resultados o se pueden construir con el fin de poder medir la consecución o no de los objetivos? ¿Se ha implementado la política adecuadamente? ¿Cuál es el nivel de implementación? (Alvira, 1996).

2.1. Berdintasunerako Planak

Emakumeen aurkako indarkeriaz ari garen heinean, beharrezkoa da politika publiko eraginkorrak garatzeko, horiek género-ikuspegia kontuan hartzen duten berdintasunerako planekin harremanetan jartzea eta lankidetzan batean jardutea.

Berdintasunerako plan baten bidez, emakume eta gizonen arteko desberdintasuna aldatzeko konpromisoa hartzen da; errealitatean aldaketak eragitea lortu nahi da burutuko diren jarduerak eta analisi guztiei género-ikuspuntua aplikatuz. Lan-plan bat bezala ulertu behar da, zeinak denbora jakin batean berdintasunerako plan lokal, foral eta estatalak zehazten dituen. Ondorioz, lan-prozesu bat jartzen du martxan, baita ere giza-baliabide eta ekonomikoaren prozesu bat.

Bestalde, bere gain hartzen dituzte gobernu batek onartutako helburu- eta neurri-multzo bat, eta horiek aldi zehatz batean departamendu desberdinek burutu behar dituzte. Beraz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eraginkorra izatera orientatutako estrategia-multzoak dituzten jarduerak markoak dira berdintasunerako planak.

Berdintasunerako Politiken tresna eraginkor nagusia da Berdintasunerako Plana, helburu dutena emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunerako politikak bultzatzea. Berdintasunerako plana beharrezkotzat jotzen da sistema patriarkatuaren deuseztapenerako, baita berdintasun-printzipioaren betearazpena bermatzeko.

Plan guztien moduan, abantailak zein desabantailak ditu. Alde batetik, hauek dira sendotasunak:

- Kontzientziaketa botere publikoei
- Konpromezu politikoa
- Globaltasuna
- Ikuspegi estrategikoa
- Departamenduen arteko koordinazioa
- Eragile desberdinen parte-hartzea
- Jarraipena
- Ebaluazioa

Beste aldetik, ahultasunak hurrengo hauek:

- Limurtze-estrategiaren menpekotasuna gainerako instantziekiko
- Planen arteko mimetismoa eta berrikuntzarik ez
- Gobernuranzko gehiegizko orientazioa
- Beste eragile batzuen parte-hartze eza
- Eremu sinbolikoan geratzea

Bestalde, berdintasunerako plan bat aurrera eramane eta horretan esku-hartzen hasi baino lehen, haren planifikazioa egin behar da (ikus Eranskina I). Planifikazioa egitea ez da denbora-galera bat, baizik eta aurkakoa, denbora aurrezten da.

Berdintasunerako Planekin erlazionatuta, esangura berezia du *MAGEEQ (Mainstreaming y Políticas de Igualdad de Género en Europa)*² proiektuak.

MAGEEQ 2003an hasiera eman zitzaion ikerketa-proiektu europear bat da, helburu duena Europako genero-berdintasunerako politiken interpretazio-markoak analizatzea eta horrela, aipaturiko politiken formulazioaren hobekuntzan laguntzea.

Proiektu honek testuen analisirako garatutako tresna galdera-gida batzuek osatuta dago. Galdera-gida horiek dira genero-berdintasunerako politiken markoen analisirako oinarria eta testuen formulazio eta ebaluaziorako erabilgarriak izan daitezke. Tresna garatu da mugimendu sozialen teoria, generoaren teoria, diskurtsoaren analisia eta teoria politikoaren elementuak erabiliz.

Galdera-gidak sei dimentsio desberdinetan bereizten dira: ahotsa, errolak diagnosian, iragarpena edo konponbidea, errolak iragarpenean, eta diagnosi eta iragarpenaren arteko oreka. Dimentsio hauetako bakoitzari galdera-zerrenda bat elkartzeko zaio, arreta hurrengo eremu hauetan ardatzen laguntzen dutenak: arazoaren kausak eta arazoa konpontzeko baliabideak, arazoaren kokapena eta haren konponbidea, generoaren dimentsioak eta beste desberdintasun batzuekiko intersektionalitatea (ikus Eranskina II).

² <http://webs.ucm.es/info/mageeq/inicio.htm>

Kontuan hartuta proiektuaren helburua eta barnebiltzen dituen sei dimentsio horiek, gomendagarria da emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko garatzen den edozein politika publiko horrelako tresnetatik igarotzea; kasu honetan bereziki, Aurre! Foru Plana.

2.2. Aurre! Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko I. Foru Plana

Emakumeen aurkako indarkeriaren ondorioz oinarritzko eskubideak bortxatzen diren heinean, erakunde publikoek fenomeno hori ezabatzeko ahaleginak eta neurriak hartu behar dituzte. Horretarako politika publikoak garatzea ezinbestekoa da, hau da, Estatu batek gobernu eta administrazio-publikoaren bitartez diseinatu eta kudeatzen dituen proiektu edota jarduerak gizarte bateko beharrak asetzeko helburuarekin (Graglia, 2012: 19 or.).

Gipuzkoa mailan, esangura berezia du Gipuzkoako Foru Aldundiak, hain zuzen ere Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoak, garatu duen Aurre! Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko I. Foru Plana.

2.2.1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren sorrera³

2005. urtean onartu zen 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa, zeinak foru administrazioaren eginkizunak eta eginbeharrak ezartzen dituen emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan. Lege horren arabera, Foru Aldundiari dagokio Gipuzkoako Lurralde Historikoan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika eraginkorrak abiarazten laguntzea. Lege mandatu horri erantzuteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak barne egitura bat sortu zuen 2008. urtean, berdintasunerako politikak bultzatzeko. Hain zuzen ere, Lankidetzako, Giza Eskubideetako eta Berdintasuneko Zuzendaritza.

Zuzendaritza horren helburu nagusia da Gipuzkoan emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzea –benetakoa eta eraginkorra– bizitzaren alor guztietan: politikagintzan, ekonomian, kulturean, gizartean eta familian.

³ <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/berdintasuna/zuzendaritza>

2/2015 Foru Arauaren ondorioz, Berdintasun Zuzendaritza sendotu eta Diputatu Nagusiaren Alorrean atxikita geratu da. Horrela, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa izena du, berdintasunerako politikak bultzatzen laguntzen duena zeharkako ikuspegi batetik.

Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa, organo sustatzaile bat da, bereziki jarduketa esparru hauek dituena:

- Toki mailan, berdintasuneko politikak sustatzea.
- Lurraldean, sare eta praktika feministak sustatu eta indartzea.
- Indarkeria matxistaren aurkako borrokaren politika diseinatu eta haren jarraipena egitea, prebentzioaren eta arretaren ikuspegietatik.
- Gizartea sentsibilizatzea generoko ezberdintasunei buruz eta berdintasunaren alde.

2.2.2. AURRE! Foru plana⁴

Organoak dituen jarduketa esparru horiek kontuan hartuta, Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoak Aurre! foru plana garatzeko, kontuan hartu ditu Europa mailan, emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako borrokari eta prebentzioari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenak jasotako estatuek bete beharreko neurrien ezaugarriak:

- Generoan oinarritutako emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria izan dezatela ardatz eta biktimaren giza eskubideak eta segurtasuna izan dezatela xede nagusizat.
- Ikuspegi integrala izatea eta biktimen, delitugileen, neska-mutilen eta horien guztien ingurune sozial zabalaren arteko harremana kontuan hartzea.
- Neurrien helburua izatea bigarren biktimizazioa saihestea.
- Indarkeriaren biktima diren emakumeen ahalduntzea eta burujabetza ekonomikoa helburu izatea.
- Neurri horiek, behar izanez gero, aukera ematea espazio beretan babes eta laguntza zerbitzuak ezartzeko.

⁴ http://berdintasuna.gipuzkoa.net/documents/73267/0/Behin+betiko+aurre+plana_+elebi/adc15642-f12f-44a2-bcf4-0b88f95fc281

- Neurri horiek pertsona kalteberen premia bereziei erantzutea, baita biktimen seme-alabei ere, eta pertsona horientzat guztientzat eskuragarri egotea.

Honen harira, Foru Aldundiak emakumeenganako indarkeria matxistaren aurkako foru plana prestatu zuen, **Aurre!** deiturikoa hain zuzen ere. Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko 2016-2019 bitartean indarrean egongo den I. Foru Plana da; helburu duena emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko Gipuzkoa lortzea.

Plana ondorengo puntu hauen inguruan antolatzen da:

- Jardun eremuak.
- Planaren helburu orokorra eta eremu bakoitzaren helburu orokorrak.
- Eremu bakoitzarekin lotutako helburu espezifikoak.
- Helburu espezifiko horiek lortzeko burutu daitezkeen jarduketak.
- Plana gauzatzeko ardura duen foru zuzendaritza edo departamentua.

Aurrera eramateko, foru-politikaren eredu bat diseinatu eta lau fasetan garatu zen. Lehenengo fasearen helburua izan zen foru politika aztertzea, sendotasunak eta ahultasunak identifikatzeko asmoarekin. Bigarren fasearena berriz, alde batetik, indarkeria matxistaren adierazpen desberdinak izendatzeko terminologia eta oinarrizko kontzeptuak lantzea eta adostea; eta bestetik, indarkeria matxistari aurre egiteko foru politikaren eredia adostea. Hirugarren faseari dagokionez, honek helburu zuen emakumeei arreta emateko foru zerbitzuen diseinua eta barne-lana egiteko ereduaren diseinua; eta arreta zerbitzu espezializatuei dagokienez: 1) Esku-hartzearen helburua izan behar da bizirik atera diren emakume biktimen ahalduntzean esku hartzea, emakumeak egoeratik sendotuta irteteko aukerak zabaldu eta, horrela, indarkeria sexista berriro pairatzea saihestearren, 2) Hauek izango dira gutxieneko zerbitzuak: arreta soziojuridikoko zerbitzua, arreta psikosozialeko zerbitzua eta harrera eta esku-hartze psikosozialeko zerbitzua. Azken fasea, hau da laugarren fasea, zentratzen da proposamena Gipuzkoako udaletako berdintasuneko teknikariei eta gizarte zerbitzuetako langileei aurkeztean.

Bestalde, Aurre! foru planak lau esku-hartze arlo ditu aztergai:

1. **Prestakuntza:** Planaren garapenean parte hartzen duten foru eta udal esparru desberdinetako langileen berdintasun alorreko gaikuntza bermatzea.

2. **Ikerketa:** Lurraldeko indarkeria sexistaren inguruko datu eta azterketa objektibo, kontrastatu eta eguneratuak izatea, arazoa hobeto ezagutu ahal izateko, eta, ondorioz, geroz eta zehatzagoak izateko prebentzio, prestakuntza nahiz arreta arloan gauza daitezkeen jarduerak.
3. **Prebentzioa eta sentsibilizazioa:** Berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako aldaketak eta jarrerak sustatzea, bereziki lurraldeko gazteen artean. Mezu argiak sortu eta zabaltzea, indarkeria matxistaren molde ezberdinak ikusezin egiteko, normalizatzeko, minimizatzeko edota justifikatzeko joerak indargabetu ahal izateko.
4. **Arreta eta babesa:** Indarkeria sexistari aurre egiten dioten emakumeei arreta egokia ziurtatzea hainbat jarduera abian jarritz, horien bitartez egoera horretatik ahalduntzea lortuta ateratzeko aukera izan dezaten, eta gizartearen aintzatespena eta indarkeria sexistaren biktima gisa urratutako eskubideen berreskuratzea eta leheneratzea sustatu dadin.

Arreta eta babeserako esku-hartze arloa, indarkeria jasan duten biktimei zuzendua dago; hau da, emakumeei. Hortaz, agerian geratzen da erasotzailea gizona dela eta biktima emakumea.

V. EBALUAGARRITASUNA

Plan guztiek izan behar dute jarraipen eta ebaluazio bat, planaren efizientzia eta efikazia zehazteko helburuarekin. Hortaz, Aurre! Foru planari ere dagokio ebaluazioaren aztergai izatea.

Gizonen eta emakumeen berdintasunerako 2/2015 Foru Arauaren⁵ arabera (2/2015 FA, 8.1.d) artikulua), “*Berdintasun Organoari dagokio indarkeria matxistaren aurkako foru politikaren diseinua, koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioaren koordinaketa bultzatzea gizarte politikaren esparruan Gipuzkoako Foru Aldundian eskumenak dituzten departamentuekin*”.

⁵ <http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/normativa/docs/0001052e.pdf>

Ebaluazioek helburu badute informazioa hobetzea eta erabakiak hartzearen ziurgabetasunak murriztea, ebaluagarritasuna zuzentzen da ebaluatzeko erabakiaren ziurgabetasunak murriztera eta hobetzera.

Ebaluagarritasunaren helburua da erabakiak hartzearen hobetzea, baliabideen esleipen ona ziurtatzea eta ebaluatzeko erabakiaren gainean kontuak ematea. Ebaluagarritasuna ulertu behar da ebaluaketa-prozesu sakon baten aurre-baldintza bezala.

Ebaluagarritasunaren ebaluazioak kateatuta dauden bi galderen gainean jartzen du ardatz nagusia: Merezi al du ebaluatzeak?; erantzuna baiezkoa bada, zein tresnarekin komeni da egitea?

Hala eta guztiz ere, beti merezi du ebaluatzeak; ebaluazioaren helburuei jarraiki ekarri ditzakeen onurak kontuan hartuta. Beste gauza bat da, politika publiko baten diseinua egokia ez izatea politika horren inpakturik ezin delako neurtu eta ondorioz, diseinua eraldatu behar izatea.

Lehenengo galdera aurkitzen saiatuko da ebaluatu beharreko politika publikoa zer gauza zen jatorriz eta zer bihurtu den inplementazioaren ondoren. Aurkitzen saiatuko da zein ziren lortu nahi izandako helburuak, zein irismen duten gaur egun, zein diren erabilitako bitartekoak eta haren erabilera, eta batez ere, zein den politika publikoaren teoria. Bigarren galdera berriz, politika publikoa nola analiza litekeen erabakitzen saiatzen da, nola neurtu eta zein izango litzatekeen diseinurik egokiena hura ebaluatzeko.

“*Evaluability assessment*” kontzeptua 70.hamarkadan sortu zuen J. Wholey eta haren jarraitzaileek: Horst, Nay, Scalon, Rutman. Jatorriz, ebaluagarritasuna tamaina handiko programen ikerketara orientatu zen, horiek ebaluagarriak ote ziren zehazten saiatuz (Wholey, 1987).

Wholey-ren jarraitzaileetako batek, hain zuzen ere, Rutman-ek (1980, Merino, 2007an aipatua: 11 or.) honela definitu zuen ebaluagarritasuna:

La evaluación de evaluabilidad es un medio que nos sirve para asegurar usos más prudentes con los escasos medios humanos y materiales disponibles... (así como) para

ayudar con este tipo de pre-evaluación a conseguir evaluaciones técnicamente más factibles que logren sus objetivos con mayor probabilidad.

Wholey-ren arabera, “esku-hartzeen % 50-a baino gehiago ez dira ebaluagarriak” eta arrazoiak hurrengoak direla irizten du: 1. Programa edo politika beraren arazoak. 2. Programa edo politikak inplementatu dituzten administratzaileen arazoak. 3. Kostuaren, baliabideen eta denboraren arteko bateraezintasuna lortu nahi denari dagokionez.

Bestalde, hauek dira programa edo politiken eraginkortasun-eza areagotzen duten arlo arazotsuak: 1) definizio falta; 2) programa edo politikaren oinarri teorikoaren falta; 3) ebaluazioaren asmoen argitasun eza; eta 4) ebaluazioaren lehentasunetako argitasun eza.

Gainera, oinarri teorikoa falta den kasuetan Wholey-k (1987) beharrezkoa deritzo:

Implicar a los políticos claves, a los directivos, al staff para desarrollar y clarificar la teoría del programa, para intentar ponerla a punto, para decidir sobre los cambios en la actividad y en los objetivos del programa que puedan aumentar el rendimiento y para decidir la prioridad de la evaluación y los usos esperados de la información que ésta se plantea. (46 or.)

Wholey-k ebaluagritasuna programa bat ebaluagarria denaren frogaketa gisa definitu zuen eta baieztapen honek hainbat kritika izan zituenez, bere planteamendua argumentu sakonagoekin justifikatu zuen (1994, Merino, 2007an aipatua: 13 or.): “la evaluación de evaluabilidad no muestra sólo si un programa puede ser significativamente evaluado (admitiendo que todos los programas pueden serlo), sino que contribuye a clarificar si la evaluación aportará mejoras sobre el rendimiento del programa”.

“La evaluabilidad no debería considerarse un conjunto rígido de pasos procedimentales, sino como un determinado espíritu y un determinado método encaminados a una gestión orientada a los resultados” (Merino, 2007: 13 or.) hurrengo irizpide hauen bitartez:

- 1.- Involucrar a los destinatarios usuarios de la información
- 2.- Clarificar los destinatarios del programa desde la perspectiva de los directores de las políticas y administradores del programa, considerando, a la vez, a los involucrados en el servicio ofrecido y a otros “actores implicados”
- 3.- Explorar la realidad del programa, incluyendo lo factible y mensurable de sus objetivos
- 4.- Lograr poner en relación las necesidades de cambios identificadas en el programa con las actividades y los objetivos.
- 5.-Explorar diseños alternativos de evaluación.
- 6.-Acordar prioridades de evaluación y usos destinados de información sobre los rendimientos del programa

Iturria: “*La evaluabilidad: de instrumento de gestión a herramienta estratégica en la evaluación de políticas públicas*”, Merino, M., 2007, 16 or., Ministerio de Administraciones Públicas.

Jada ebaluagarritasunaren definizioa ikusirik, hauek dira haren ezaugarriak:

- Programa edo politikaren kontzeptualizazioa jakitera ematen du plangintzaren fasean, haren diseinua, beharrak eta helburuak analizatuz.
- Plangintzaren fasean programa edo politikaren diseinugileak zenbat eta zorrotasun gehiago ikusi, orduan eta errazagoa izango da haren ebaluagarritasuna frogatzea.
- Behetik gorako logika sistematiko bati erantzuten dio, prozesu bat berreraikitzen joango dena programa edo politikaren ekintza zehatzetatik eta horien emaitzetatik, helburu zehatzetaraino.
- Beharrezko informaziorako existentzia eta eskuragarritasuna egiaztatzen ditu, kalitatean eta kantitatean; zeinak ebaluazioa aurrera eramatea baimenduko duen.
- Kudeatzaile eta arduradunaren inplikazioari eta antolamenduari buruz informatzen du, euren erresistentzia edo kolaborazioa egiaztatuz. Hau da, ebaluagarritasunaren analisiarekin lortu nahi den helburuetako bat da kooperazio- eta interakzio-klima favoragarri bat sortzea ebaluatu eta ebaluatzaileen artean, ebaluazioa errazteko asmoz.
- Ebaluaziorako kontuan hartzen diren baliabideen kopurua analizatzen du.

Taula 4

Ebaluagarritasunaren ezaugarriak

- ❖ **Saca la luz la calidad de la conceptualización del programa en la fase de planificación, analizando su diseño, necesidades y objetivos.**
- ❖ **Cuanto mayor rigor** haya observado el diseñador del programa en la fase de planificación más fácil será comprobar su evaluabilidad.
- ❖ **Responde a una lógica sistemática de “abajo arriba”**, que irá reconstruyendo un proceso desde las acciones concretas del programa y sus resultados hasta su fundamento y objetivos específicos.
- ❖ **Verifica la existencia y la accesibilidad a la información necesaria, en calidad y cantidad**, que permitiría llevar a cabo la evaluación. Si no hay datos suficientes o los que hay no resultan relevantes la evaluabilidad desaconsejará la evaluación.
- ❖ **Informa sobre la implicación y disposición** del entorno gestor y responsable frente a la posible evaluación, constatando sus resistencias o colaboración. En definitiva, uno de los objetivos perseguidos con el análisis de evaluabilidad es crear un clima favorable de cooperación e interacción entre “evaluados y evaluadores” para facilitar la evaluación.
- ❖ **Analiza la dotación de recursos** con los que se cuenta para la evaluación.

Iturria: “*La evaluabilidad: de instrumento de gestión a herramienta estratégica en la evaluación de políticas públicas*”, Merino, M., 2007, 16 or., Ministerio de Administraciones Públicas.

Politika publikoak gobernuek gizartean dauden arazoez arduratzeko duten borondatek sortzen direnez, horiek ebaluatuz gero errazagoa da zehaztea zer neurritan diren estrategia horiek egokiak arazoari ekiteko.

Ebaluagarritasunaz ulertzen da programa edo plan baten diseinuaren ezaugarri zehatzek zein gradutan eragiten dioten ebaluazio eraginkor bat hornitzeko gaitasunari (Youtie, Bozeman eta Shapira, 1999: 55-64 or.). Ebaluagarritasunaren analisisa politika publikoen ebaluazioaren tresna estrategiko bat da, hurrengo arazoiengatik:

- Ebaluazioaren diseinurako eta matrizerako hobekuntzen identifikazioa errazten du.
- Balio-estrategiko altuko informazioa biltzea baimentzen du, ebaluazioan nahasita dauden aktoreek jardueren ibilbideak definitzeko.
- Programaren aurrekontua optimizatzea baimentzen du, eta batez ere, ebaluaziora doan zatia, inbertsio desegoki edo behargabekoak saihesten dituelako eta egin behar diren gastuen balioespen zehatzetan oinarritutako justifikazioak egiteko aukera ematen duelako.

- Gardentasuna eskaintzen du, baita kontuak ematea (rendición de cuentas).
- Bere erabilera zuzenak ondorengo ebaluazioa legitimatzen du.

Ebaluazioa bideragarria den kasuetan, ebaluagarritasunaren analisiak metodologia egokiak gomendatuko ditu eta ezarriko du ea ebaluazioak informazio esanguratsua sortzea baimentzen duen. Hasiera batean, edozein plan, programa edo proiektu da ebaluagarria.

Baina, ebaluagarritasunaren analisiak emaitza negatiboak erakusten dituztenean, ebaluagarritasunaren helburua izango da programa nola egokitzeari buruzko gomendioak ematea, ebaluazioa bideragarria izateko. Gomendagarria da ebaluazioa baino lehenago analisi mota hau egitea, erabilgarria izan dadila ziurtatzeko; bestalde, ebaluagarritasunaren analisia ere egin daiteke programaren berrikuspen gisa, hobekuntza arloak identifikatzeko hurrengo ebaluaziorako.

Ebaluazioa politika publikoen gakoei (hala nola, inpaktua, diseinua, efektuak, efizientzia eta efikazia) ekiteko informazio erabilgarria eta baliotsua sortzea baimentzen duen estatuaren funtzio estrategiko bat da. Gainera, politikaren jardura hobetu dezakeen tresna bihur daiteke eta eskubideen titularrak direnen interesekin eta gizarte osoarekin erlacionatutako erabilgarritasun soziala aurkez dezake.

Ebaluazioaren irismena eta mota hurrengo elementu hauen bitartez zehaztuta daude: esku-hartzearen diseinua, informazio-sistemak eta datuen bilketa inplementazioan zehar jarraipena egiteko, giza-baliabideak, parte-hartzaileengandik esperotako espektatibak eta onurak, eta orokorrean, ebaluazioaren garapenean inplikaturik dauden jarrera.

Ebaluagarritasunaren analisia da plan edo programa bat ebaluatua izateko baldintzetan dagoen identifikatzea baimentzen duen prozesu sistematiko bat, arazo bakoitzerako ebaluazio metodologiak gomendatzen dituen eta horien ebaluazioak informazio erabilgarri eta baliotsua sortzea baimentzen duena (Wholey, 1979).

Ebaluagarritasunaren pisua azken onuradunen alde egitean kokatu behar da ere; hau da, ebaluagarritasunaren helburua programa bat ebaluagarria den ala ez aztertzeaz gain, ebaluagarritasunaren bitartez onuraren bat lortuko duen azken pertsona horrek helburu izan behar du.

Kasu honetan, azken pertsona horiek emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak izango dira; eta garatzen den politika publikoa martxan jartzean, ebaluagarritasunak balioko du programak lagundu nahi dituen talde edo pertsonak egiaz lagunduak izaten ari direla ziurtatzeko. Bestalde, ebaluagarritasuna erabiliko da politikak sendotzeko eta talde edo pertsonen zerbitzura jartzeko.

1. Ebaluagarritasunerako tresna

Edozein planaren ebaluagarritasunaren analisia egiteko, protokolo interesgarria da *“Protocolo de Evaluabilidad de las políticas públicas de la Comunidad Foral de Navarra”*. Servicio de Calidad de Políticas y Servicios Públicos del Instituto Navarro de Administración Pública (INAP) eta United States Agency for International Development (USAID)-ko *Checklist for Reviewing Scope of Work for Performance Evaluation* diseinaturikoa.

Protokolo honek politika publikoen ebaluagarritasun-gradua ikuskatzea eta neurtzea baimentzen du adierazle kualitatibo eta kuantitatiboan bitartez eta bost dimentsiotan bereizten diren adierazle eta galdera-gidez osatuta dago.

Hortaz, tresnaren lanketarako bost dimentsio sortu ziren eta gai desberdinen ikerketa gidatzen duten berrogeita hiru galdera/adierazle. Dimentsioak honako hauek dira:

- 1) DIMENTSIOA: “Esku-hartzearen diseinuaren eta plangintzaren kalitatea”; proiektu baten ebaluagarritasuna zehazteko.
- 2) DIMENTSIOA: “Informazio-sistemaren kalitatea”; esku-hartzeari buruzko informaziorako eskuragarritasun-gradua zehazteko.
- 3) DIMENTSIOA: “Ebaluazio-estrategiaren kalitatea”; ikuskatzen du ea esku-hartzearen jatorritik ebaluazio-eskaririk aurreikusten den.
- 4) DIMENTSIOA: esku-hartzearen aktoreen strategiaren kalitatea estimatzen da.
- 5) DIMENTSIOA: “Baliabideak”; giza-baliabide, baliabide ekonomiko eta tenporalen esleipen-estrategia analizatzen da.

Berrogeita hiru galdera/adierazle horiek era dikotomikoan erantzun beharrekoak dira. Adierazle horiek positiboan erantzuten diren heinean, ebaluagarritasun-maila altuagoa izango

da; eta beraz, erantzuna baiezkoa bada puntu bateko balioa hartuko du, eta ezezkoa bada berriz, 0 puntuko balioa (ikus eranskina III).

2. Beharren ebaluazioa

Behin azalduta zein den ebaluagarritasunaren dimentsioa, emakumeen aurkako indarkeriaren kasuan, politika publikoek arazoari aurre egiteko eta honetan esku-hartzeko, beharren ebaluazio bat egin beharko lukete; hain zuzen ere, politika publikoak egiterako orduan kontuan hartu beharko lukete 1) nola iristen diren zerbitzuetara, 2) zein zerbitzu ematen zaizkien eta azkenik, 3) horietatik nola ateratzen diren eta jarraipenik egiten al den eta eginez gero nola.

Beharren ebaluazioa-ren ikerketak bi talde nagusitan sailkatzen dira: alde batetik, *performance needs* deiturikoa; eta bestetik, *treatment needs*. Lehenengoari dagokionez, esku-hartze publikoa justifikatzen duen arazoaren analisisian ardatzen direnak; eta bigarrena berriz, arazoaren analisisian ardatzeaz gain, aldaketak sortzeko beharrezko zerbitzuak balioesten saiatzen direnak (Casado, 2009).

Kasu batean edo bestean erabiltzen den “behar” kontzeptua ez da berdina; horrela, lehenengoan ebaluatzen diren beharrak zerikusia dute banako baten hasierako egoeraren eta desiratuko egoeraren arteko desadostasunarekin. Baina enfasia arazoak arintzeko burutzen diren esku-hartzean jartzen denean, ebaluatzen den beharra zerbitzuen beharra da; hau da, arazoa den egoera horietatik banakoak ateratzeko behar diren zerbitzu motak. Hala eta guztiz ere, talde jakin batek behar dituen zerbitzuak ebaluatzeko, beharrezkoa da arazoaren garrantzia aurrez ebaluatu behar izatea.

Nahiz eta *performance needs* (“errendimendu beharrak”) interesgarriak izan arazo jakin baten garrantzia ebaluatzeko, erabilgarritasun gutxikoak dira eragile publikoentzako. Politika publiko berri bat diseinatzeko, edo existitzen den bat birformulatzeko, gakoa da arazoa arintzeko behar diren zerbitzuak ezagutzea.

Beharren ebaluazioa osatzen duten faseak hiru dira: 1) arazoaren analisia, 2) beharrezko zerbitzuen estimazioa eta bolumena, eta behar horien arteko erlazioaren analisia eta 3) zerbitzuei egiten zaien erabilera.

1.FASEA: ARAZOAREN DEFINIZIOA

Lehen zeregina, esku-hartze publikoak zuzendu nahi duen arazo soziala definitzea da; kontuan hartuta arazo sozialari ematen zaion pisua ideologikoa dela. Horretarako, gomendagarria da aurrez eginiko ikerketez baliatzea eta esku-hartu nahi den eremuan zehazki nola definitzen den arazoa aztertzea. Bigarrenik, behin arazoa ondo definituta, lurralde zehatzean gutxi gorabehera arazoa zenbat pertsonen jasaten duten aztertzea. Arazoa populazioan zoriz esleitzen ez denean, badaudelako hainbat faktore talde jakin batzuk zaurgarriago egiten dituztenak, begietsi beharko da talde kaltetua zein ezaugarriek bereizten duen gainerako populazioarengatik. Hirugarren zeregina, arazoa sortzen duten kausen analisia egitea da.

2.FASEA: ZERBITZUEN BEHARREN ANALISIA

Fase honen helburua da arazoa jasaten duten pertsonen behar dituzten zerbitzuak zeintzuk diren estimatzera heltzea da. Fase honen konplexutasuna zerbitzuen bolumena zehaztea da banakoek jasaten duten arazoari erantzuna emateko. Modu desberdinak daude zein zerbitzu behar diren zehazteko, baina egokiena zerbitzu desberdinen eraginkortasuna eta euren kostu-eraginkortasuna era zorrotzean zehaztutako ikerketen emaitzak analizatzea da. Fase honen emaitza izango da beraz, arazoa jasaten duten pertsonen beharrak, kostu txikiaz, asetuko lituzkeen zerbitzuen bolumena eta tipologiai buruzko informazioaren lorpena.

3.FASEA: ZERBITZUEN BEHAR, DEMANDA ETA ERABILERAREN ANALISIA

Fase honen helburua da alderatzea aurreko fasearen emaitza eta zerbitzuekin egiten ari den erabilerearen informazioa, eta lortutako emaitzen arabera, politikaren funtzionamendua hobetzeko konklusio egokiak ateratzea. Bestalde, behin politika diseinuaren fasean egonda, fasearen helburua izango da arazoari aurre egiteko erabiltzen ari diren mekanismoen gabeziak ezaugarritzea.

Beharren ebaluazio bat aurrera eramateak hurrengo asmoak dakartza:

- A) Zerbitzuen ardaztea hobetzea
- B) Baliabideen lurralde-esleipena hobetzea

- C) Zerbitzu eraginkorrenak identifikatzea eta horien erabilera estimulatzea
- D) Zerbitzuen beharra aurreratzea
- E) Arazoa dimentsionatzea eta politika berri baten zerbitzuen bolumena estimatzea
- F) Politikaren arrakastaren neurketa

Emakumeen aurkako indarkeriaren kasuan, beharren ebaluazioak egoeraren berrikuspen zehatza egitea baimenduko du eta honako puntu hauek indartzeko balioko du (Nazio Batuen Erakundea, 2006):

- Zerbitzuen kantitatea eta kalitatea hobetzea, existitzen dena existitu beharko lukeenarekin alderatuz.
- Biktima bakoitzari zerbitzuen erabilera eta horietarako sarbidea hedatzea.
- Pertsona zehatz batzuen ezagutzak eta gaitasunak hobetzea; hala nola, betebeharrak dituzten ofizialen kasuan (epaileak, fiskalak, segurtasun indarrak...) eta komunitateko beste hainbat kidea (gazteak, emakumeen aurkako indarkeria erabiltzen duten gizonak, emakumeak...).
- Emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko legeria nazionala giza-eskubideen nazioarteko legeriarekin lerrokatzea.
- Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko politikak edo planak garatzea, eguneratzea edo areagotzea.
- Datu-analisen gainbegiratuaren bidez, lortutako datuak eta informazioa hobetzea.
- Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko programak ezartzeko erakundeen ahalmenak hobetzea, pertsonalaren ezagutza eta gaitasunak ebaluatuz, baita protokolo eta politikak ebaluatuz ere.

Arazoa emakumeen aurkako indarkeria denean eta beharren ebaluazioa egin behar denean lehen mailako ikerketaren bitartez, beharrezkoa da hurrengo segurtasun eta etikaren arauak jarraitzea (Watts, Heise, Ellsberg eta García , 2001):

- a) Elkarrizketatuaren eta ikerketa-taldearen segurtasuna ezinbestekoa da eta ikerketaren erabaki guztiak gidatu behar ditu.
- b) Prebalentzia-ikerketak metodologikoki esanguratsuak izen behar dira eta tratu txarraren jakinarazpena minimora txikiagotu behar da.
- c) Konfidentzialtasuna zaintzea ezinbestekoa da, emakumearen segurtasuna eta datuen kalitatea bermatzeko asmoz.

- d) Ikerketa-taldeko kide guztiak kontu handiz aukeratu behar dira, hezkuntza jaso behar dute eta laguntza jarraitua izan.
- e) Ikerketaren diseinuak ekintza desberdinak barneratu behar ditu, zeinak bideratuta egongo diren ikerketak eragiten duen zailtasun posible guztia txikiagotzera.
- f) Langileek hezkuntza jaso behar dute laguntza eskatzen duten emakumeak laguntza-iturrietara bideratzeko.
- g) Ikertzaileek laguntzeko betebeharrak etiko bat dute: emaitzak egoki interpreta daitezen eta horiek politika eta esku-hartzeen garapena bultzatzeko erabil daitezen bermatzeko.
- h) Baldintza etiko eta metodologikoak ase daitezkeenean indarkeriaren gaineko galderak soilik diseinatutako galdeketetara gehitu behar dira.

VI. ATAL ENPIRIKOA

1. Elkarrizketen analisisa

Gradu Amaierako Lan honetan erabilitako metodologia kualitatiboa da; elkarrizketan oinarritua dago emakumeen beharrak ebaluatzeko eta politika publikoentzat hobekuntzak eta gomendioak proposatzeko. Zehazki, lan honetan, ikerketa-proiektua egiteko baliatzen ari garen 3 elkarrizketen analisisa egiten da.

Elkarrizketa hasiera batean egituratu gabea da, emakumeari hitz egiten utzi zaio jasandako indarkeria ekintzei buruz eta momentuan bizi duen egoera judizialari buruz, zaintza partekatuari dagokionez zehazki. Haria galtzen hasiz gero, elkarrizketatzaileak elkarrizketa bideratzen du. Zenbaitetan, datuak ustiatzeko asmoz elkarrizketa egituratua da eta galderak irekiak nahiz itxiak izan daitezke. Beraz, esan daiteke elkarrizketa mixto baten murgildu garela datuak lortzerako orduan.

Ikerketa-proiektuaren harira, kontuan hartzen ari garen lagina da emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren eta zaintza partekatua duten emakumeak; egoera horretan egoteagatik izan dira aukeratuak. Bestalde, beraien esperientziak zuzenean ezagutzeko aukera

baimentzen du elkarrizketak eta informazio ugaria jasotzeko ere; horregatik, elkarrizketa irekiaren izaera.

Hasieran aipatu bezala, azken urteotan emakumeen aurkako indarkeria ikusezina izan eta esparru pribatutik ateratsetik, arazo publikotzat hartzea lortu izan den arren, delinkuentzia honen zifra beltza nabaria eta esanguratsua da.

Zifra beltzaren ideia “kriminalitate errearen” zati ezezaguna izendatzeko asmatu zen, eta kriminalitate erre hori defini daiteke burututako eta autoritateei jakinarazitako delituen multzo gisa. Hortaz, kriminalitatearen zifra beltza kriminalitate errearen eta itxurazkoaren zenbakizko desberdintasun existentea da; ezkutuko zifra ere deitzen zaio. Zifra beltz kontzeptuak kriminologian du jatorria; eta salaketa bat jartzea zigor-sistamarako giltza den heinean, giltza hori ez erabiltzeak kriminologia martxan jartzea aberasten du.

Horrela, salaketa bat ez jartzeak ez du esan nahi delitua burutu ez denik, baizik eta hainbat arrazoiengatik ez dela salatu. Indarkeria salatzerat atzeratzen duten zailtasun, oztopo eta zalantzak hainbat faktoreen eragina izan ohi da: psikologikoak, juridikoak, sozialak eta ekonomikoak; eta hurrengoak dira oztopo nagusienak (Bodelón, 2012: 32-50 or.):

- a) Genero-indarkeriaren normalizazioa, hau da, jasandako indarkeriaz ezagutza izateko zailtasuna da lehen oztopoetako bat. Normalizatzeko horrek kulturaren du jatorria, zeren eta kultura da erlazio maitekorrek normalizatzen dituen, non erlazio horiek agerian jartzen duten emakumeen mendekotasuna gizonekiko. Bestalde, emakume askok ez dute ezagutzen indarkeria psikologikoa delitu gisa tipifikatua dagoenik.
- b) Erruduntasun-, lotsa-sentimendua, blokeo emozionala dira arrazoi batzuk. Emakume askok sentitzen dute erruduntasuna edota lotsa, eta sentimendu horiek galarazi egiten dute salatzea. Emakume askok sekretupean izaten dute indarkeriaren esperientzia, lotsagatik, auto-ukapena, erasotzailearen erreakzioari beldurra edo jendearen gaitzespenagatik. Emakumeek isolamendu-egoera bizitzen dute eta horrek blokeo emozionala eragiten die.
- c) Seme-alabak babestearren, emakume askok ez dute jasandako indarkeria salatzen. Seme-alabak gehiago ez sufritzea da ez salatzearen zergatietako bat, baita aitatasunaren irudia mantentzea.
- d) Indarkeria larriago bati beldurra izaten diote emakumeek behin salaketa jarri ondoren, baita erasotzaileak emakumearen ingurune sozialari kalte egiteko arriskuari. Bestalde,

zigor-sistemaren babesean konfiantza eza, zeren eta babesa ematen den unean beldurra ez da arindua izaten.

- e) Mendekotasun ekonomikoa eta seme-alaben zaintzarako baliabideen falta izaten da beste arrazoi bat. Mendekotasun hori, erasotzaileak burututako berezko indarkeria ekonomikotik dator. Autonomia ekonomiko ezak, legezko defentsarako kostuari buruzko informazio ezarekin batera, emakumeei eragin diezaieke salaketa ez jartzea.
- f) Ingurune familiar eta sozialak helarazten dituzten mezuek ere badute eragina; hemen garrantzia dute belaunaldiek; hau da, belaunaldien arabera ingurune batzuek erlazioarekin jarraitzeko presioa bultzatzen dute, eta beste batzuk ordea, salaketa jartzekoa.
- g) Badaude beste hainbat oztopo, eta horien artean aurki daiteke erakunde eta eragile profesionalengan konfiantza eza, eta batez ere, sinistruak ez izatearen beldurra.

Elkarrizketek agerian jartzen dute lanaren hasieran azaldu den Walker-ek garatutako “Indarkeriaren zikloaren teoria”. Testigantzen arabera, erlazioaren lehenengo urteetan hasten da bikote-harremanean tentsioa sortzen eta metatzen, hau da lehenengo fasea, hainbat modutan: *“los celos y el control”* ; *“muy amenazante en sus formas”* ; *“directamente me sacaba de las conversaciones y me llevaba pa’fuera, o pal’baño o pa’casa o a la calle. Y bueno, pues ahí siempre había pequeñas discusiones...”* ; *“había fines de semana que igual yo no salía, o días que yo no salía y él sí”*; *“el hecho de que le daba la vuelta a las cosas y las cosas eran culpa mía”*; *“él al final me hacía como sentir culpable”* ; *“él también veía imposible que yo aprobara (oposaketak). Y de hecho él me decía: “tienes que estudiar más”, entonces claro, yo me quedaba más en casa”* ; *“de que ... si estaba cada vez más fea ... que me estaba poniendo muy gorda ... que a ver si adelgazaba, bueno adelgazaba no, perdón, que si salía a ver si me arreglaba”* ; *“él como encima tampoco lo hacíamos (sexu-harremanak) pues ya eran tipo en que ... me iba diciendo que a la larga se iba a buscar a otra porque no era normal ni que no lo haríamos”* ; *“en el embarazo nunca me ayudaba en lo importante”* ; *“tuvimos al bebé y en la relaciones sexuales me rechazaba”* ; *“no te mereces comer”* ; *“por tu culpa no he podido estar con vosotras este fin de semana porque te has marchado a la calle”* ; *“he estado enferma, me ha dejado tirada, nunca me ha cuidado”* : *“él coge, me tira el móvil y me dice “¡Ojalá te mueras!””* ; *“reconóceme ... que me has jodido la vida”* ; etab. Adibide hauek indarkeria psikologikoaren adibide nagusiak dira; nahiz eta larritasun handikoak ez iruditu, denek kaltetzen dute osotasun psikologikoa.

Lehenengo fase honetan, emakumea errudun sentitzen dela nabaria da eta gertatutako guztiak porrot pertsonala eragin duela: *“estaba tan anulada ... incluso actualmente me siento tan anulada por todo lo que ha pasado”*. Minimizatzeke joera ere: *“unas cosas no te das cuenta y las que te das cuenta las minimizas”*.

Bigarren faseari dagokionez, hau da tentsioaren askapena, modu desberdinetan eman da, horren adibide dira hurrengo azalpenak: *“algún empujón”* ; *“me pegó un empujón”*; *“yo me acuerdo que yo dormía así agarrada (me toma la muñeca y la agarra con fuerza con su mano para explicarme cómo le agarraba para dormir), agarrada, me tenía agarrada o lo que sea”* ; *“le hablabas de algo por la noche que es lo que no quiere oír se ponía agresivo”*; *“nos tiró al suelo (emakumea eta alaba) ... se no abalanzó encima (...) intento enganchar a la niña (...) a la niña estaba aplastando (...) cuando fui por la puerta me volvió a enganchar”*.

Erasoak hiltzen saiatzeraino irits daitezke: *“me doy la vuelta, me voy a la otra habitación a por el pijama, me estoy agachando poniéndome el pantalón, me coge por detrás del cuello con los diez dedos y me empieza a apretar, apretar, apretar, me gira y me coloca contra una esquina de la puerta, en una posición ... yo creo que iba a golpearme, o sea me tenía así agarrada ... con intención de golpe, golpe, golpe, contra la esquina del marco de la puerta. Pausa. Porque la puerta estaba abierta claro. ¡Aaaaa! ¡Aaaaa! (Simula sonido de asfixia) el ahogo, yo no podía respirar. (...) le ve (alaba) a él cómo me está apretando el cuello, le ve perfectamente”*.

Gertakari hauen ondorioz, emakumeak beldur intentsu batean bizi dira, baita euren seme-alabak ere. Ez da ahaztu behar, emakumeen aurkako indarkeria jasaten den kasuetan seme-alabak ere biktimak izan daitezkeela zuzenean edo zeharka, euren garapen pertsonal zein sozialean kalte larriak eraginez.

Testigantza hauetan azken fasearen zantzuak ere ikus daitezke, damutze eta promesen garaia hain zuzen ere: *“La actitud fue diferente fue: “perdóname ... que se me ha ... no sé qué me ha pasado ... es que estoy muy estresado ... ya sabes el tema del embarazo ... que no sé qué ...” y que le perdonara y que no iba a volver a pasar”*. Gizona damutu egiten da izan dituen portaerengatik, eta barkamena eskatzen du emakumeak itxaropena berreskuratzeke; bestalde,

bere ekintzak zurrizko joera du, errua kanpo-faktoreei edo emakumeari berari botatzen dielarik.

Elkarrizketetan ikusten da salaketak jartzeari dagokionez, bi ikuspuntu desberdin daudela: bata, salaketa jartzea, eta bestea, salaketa ez jartzea. Salaketa ez jartzearen arrazoiak, salaketa jartzeak izango dituen ondorioak, errepresaliak, beldurrak... direla ikusten da: *“La abogada no hacía más que decirme que denunciara, pero yo tenía mucho miedo”* ; *“Una amiga, me dijo: “no le denuncies, porque si no, no vas a poder volver a ir, va a ir a por ti, te va a matar””*. Argia da biktimaren ingurune sozialak eragin handia duela erabakia hartzerako orduan.

Hala ere, emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean jarduten duten profesionalek salaketa jartzearen hautua egiteko gomendatzen dute: *“Me dijo (el ertzaina): “pon la denuncia y te voy a decir más, como te echas atrás te va a volver a agredir. Y te voy a decir más. Mira ane, la primera, te aseguro que hay más””*.

Nahiz eta kasu batzuetan ez izan horrela: *“Tuve que cambiar de abogada porque ... mmm ... esta abogada se quedó embarazada también y ... tuve que cambiar de abogado (...). A esta (una nueva abogada) le comenté todo y tal y cual, y le hablé de todo y entonces yo ya si estaba preparada para denunciar. Sobre todo veía que él iba a por mi hija. (...) Entonces ¿que le dije?, que quería denunciar. Y ella me dijo que no (...) “mira yo, te tengo que decir que no te lo recomiendo, porque ahora se va a decir que estás instrumentalizando, se va a instrumentalizar esa denuncia y va a decir que denuncias porque quieres evitar que le den la custodia compartida, o porque quieres influir en las custodias de tu hijo...”* ; *“En el SAV no son partidarios tampoco prodenuncia (...) que no denunciara. Porque se iba a instrumentalizar, porque ... ¡vamos! Porque iban a instrumentalizar esa denuncia diciendo que yo la he puesto solamente por el tema de la custodia de la cría.”*

Instrumentalizazioaren harira, seme-alabak instrumentalizatzea haurren tratu txarren adierazlea izan daiteke, baita haurren eskubideen urratzea ere. Gurasoen aldetik ematen den instrumentalizazio kasuetan, adierazpen desberdinak ohikoak izan ohi dira, hala nola, adingabearen manipulazio emozionala eragitea bilatzen duten jokaera tipo desberdinak. Seme-alaben instrumentalizazioa identifikatzen laguntzen duten beste adierazpenetako bat da bisita erregular eta etengabeen ukapena. Honako kasuan ikusi daiteke aitzak zein modutan

instrumentalizatzen duen alaba emakumea kaltetzeko asmoz: *“Por tema de las entregas y recogidas: porque la entregaba siempre tarde y no me daba explicaciones, no me cogía muchas veces el teléfono cuando ni siquiera había aparecido que yo no sabía si había pasado o no, no respetaba los días de vacaciones y no ... y cuando igual me la tenía que traer un miércoles me la traía un jueves”*.

Gai honi jarraiki, abokatuetak batek izandako jarrera azaltzen du honako testigantzak: *“Entonces ellos piden (se refiere a la otra parte del proceso) que ... tener un ... ¡ay! Ahora no me sale la palabra ... ehh ... un acuerdo; un acuerdo, llegar a un acuerdo. Y yo le dije a mi abogada que no. Que no quería llegar a ningún acuerdo porque ya anteriormente habíamos tenido problemas, ya no solamente el tema de la niña, sino por todo. Por tema de las entregas y recogidas: porque la entregaba siempre tarde y no me daba explicaciones, no me cogía muchas veces el teléfono cuando ni siquiera había aparecido que yo no sabía si había pasado o no, no respetaba los días de vacaciones y no ... y cuando igual me la tenía que traer un miércoles me la traía un jueves ... o sea y entonces yo le dije que no. Mi abogada ... iba al juzgado y yo cada vez que decía algo: “no llargi, no denuncies que es mejor no denunciar porque esto te va a traer más problemas porque esto ...” y yo decía ... “ya, y ¿cómo justifico yo las cosas que van pasando para que quede registrado?” “ya, pero eso no te beneficia porque ya sabes que estás con el tema ahora de la custodia que no sé qué, ...” y me dijo un día: “mira llargi es que me está venga a llamar XX XX (dice el nombre del abogado de él), que es el abogado de él para que lleguemos a un acuerdo” y yo le dije: “no voy a llegar a ningún acuerdo, quiero ir a juicio y punto”*. Horrelakoetan, abokatuak zein interes gainjartzen duten antzematen da; soilik kasua irabaztea edo beste alderdiarekin akordio batera iristea, biktimaren interesak kontuan hartu gabe. Biktimak babesgabetasun-egoera batean murgiltzen dira, abokatua baita euren interesen ordezkaria eta konfidantza osoa jartzen dute abokatuengan.

Bestalde, ikerketa-proiektuan interesatzen den gaietako bat sistema juridikoak género-ikuspegian duen ezagutza aztertzea da. Elkarrizketen arabera, biktimen kasuak aurrera eramane dituzten abokatuak ez dira emakumeen aurkako indarkerian adituak direnak, ez dute género-ikuspegi batetik lan egiten: *“¿Era una abogada especialista en violencia de género? No, no, de hecho era una abogada que todavía no había ejercido”* ; *“¿Era especialista en*

género? No. A día de hoy sigue siendo mi abogada ¿eh? Mmm ... , entonces yo no denuncié, claro.” ; “No era experta en violencia.”

Elkarrizketatu baten kasuan ikusi da ere zer nolako ez-jakintasuna edota informazio falta dagoen emakumeen aurkako indarkeria ematen deneko kasu batean, behin hospitalera iristen denean biktima, haren azterketa medikoa egiteko: *“He vuelto a tener una agresión, esta vez física (...) yo tampoco he puesto denuncia, ni pienso denunciar, pero yo no sabía que al ir a urgencias, al Hospital, mandan al Juzgado. Yo no lo sabía, yo desconocía eso”.*

Bestalde, ez dago ezagutzarik biktimei ematen zaizkien asistentzien inguruan: *“Estaba dispuesta a denunciar, y de hecho estuve en el psicólogo, en el Servicio de Asistencia a la Víctima (SAV), estuve en Zutitu porque yo seguía estando fatal, tal, cual... (...) Me mando la abogada, ¡me mandó la abogada!, ¡yo no sabía ni que existía eso!”*

Salaketa jartzeak edo ez jartzeak ekarriko dituen ondorioez gain, salaketa jarri duen emakumea biktima gisa etiketatzen da lehen mailako biktimizazioa jasan duelako. Hala ere, ez da ematen den biktimizazio bakarra; izan ere, eragile publiko eta beste zenbait eragile sozialekin duen erlazioetatik eratortzen den bigarren mailako biktimizazioa ere emango da eta horren adibide nagusi dira hurrengo elkarrizketatuen bizipenen testigantzak:

“Estuve con una abogada y hablando con ella de todo esto me dice: pero si tú eres ertzaina ¿cómo no vas a saber? y le dije, “mira, por favor, basta ya de que si soy ertzaina, tambien he estudiado psicología y ¡mira lo que me ha pasado! (...) A día de hoy me dicen: “pero si eres ertzaina””. Kasu honetan, abokatuak biktimari hainbat ezaugarri txertatzen dizkio ertzaina izateagatik eta gertatutakoaren erruduntzat jotzen du. Gizarteak ere pisu handia du horrelako balorazioak egiterakoan, uste batzuk atxikitzen dizkiogu kolektibo zehatz bati, espektatibak jartzen ditugu horiengan, ez dutenak zertan horrela izan behar. Kontuan hartu behar da hiritar guztiek ez dutela legezko-ezagutzarik.

“Que, al ser mujer maltratada, tenemos una ayuda en Zutitu para ir a los psicólogos y que como estaba yendo con psicólogos y todo eso, pues que puede ser yo que me lo esté inventando o esté desvaneciendo o ... Y digo, o sea, el Juzgado nos da ayuda a las mujeres maltratadas para que luego los Jueces, ¿lo cojan para perjudicarnos a las mujeres? Entonces ¿para qué nos ayudáis psicológicamente?” Badago uste orokor bat hainbat

emakumek salaketa faltsuak jartzen dituztela onura desberdinak lortzeko asmoz; hala ere, portzentaia oso urria da. Ikusten da uste orokor hori ez dela soilik hiritarrengan txertatu, baizik eta epaitegi zein auzitegietan ere. Hortaz, antzeman daiteke epaileek ere ez dutela genero ikuspegitik lan egiten; sinesmenek pisu handia dutelarik.

“La cría empezó a contar que aita le ponía el pitito en culo (...) me dice que aita le ata los brazos y las piernas y le toca el cuerpo. (...) Me dice: “Se tumba así, se pone de lado...” Y le digo “¿Tenías braguitas ¿Tenías ropita?” y me dice ... “no”. Denuncié (...) los Servicios Sociales están al tanto pero no me creen... (...) La forense valora que no pasa nada, que es un juego. Que es un juego entre padre e hija y que no pasa nada. (...) Los Servicios Sociales del Ayuntamiento enviaron un informe a la Diputación y la Diputación no ha emitido un informe, no hay evidencias, no hay pruebas.” Aipatu bezala, emakumeen aurkako indarkeria kasuetan, emakumea biktima izateaz gain, seme-alabak ere izan daitezke; hemen kasu horietako bat, zehazki, sexu-abusuen biktima. Hemen ere, aurreko kasuetan bezala, ez da sinesgarritasunik ematen gertatutakoari.

Elkarrizketetan agerian jartzen den beste aspektuetako bat da aitatasunaren irudia. Ez da ahaztu behar, nahiz eta gizona tratatu txarren emalea izan, seme-alaben aita izaten jarraitzen duela eta irudi hori berreskuratzea bultzatu behar dela. Elkarrizketatutako emakumeen kasuan, ikusi da egoera normalizatzearen alde egin dutela eta seme-alabak aitarekin joatea bultzatu dutela: *“Y sobre todo, porque yo, sabiendo que ya no iba a denunciar, vamos yo ya no estaba pensando en esto, lo que quería cuanto antes era normalizarlo todo. O sea, correr un tupido velo de esta ... este infierno y por mi hija normalizarlo, asumir, ya buscaría yo la manera, la ayuda psicologica o lo que fuera para asumir que Tú eres su padre y seguir.” ; “Yo intento a la niña llevarlo lo mejor posible, y bueno, yéndole animándole diciéndole que bueno, que sí que con papa se lo pasa bien, púes qué va a decir una madre para que la niña vaya contenta pues...”*.

Emakumeen ahaleginak kasu batzuetan ez dira eraginkorrak izan. Izan ere, seme-alabak indarkeriazko ekintzak ikusi eta horien jakitun izan dira eta ondorioz, aitarekin egotea ukatzen dute beldurra ematen dielako: *“la niña nunca ha querido ir con él porque es que claro, estaba tan poco tiempo y además siempre como enfadado ... mmm ... vamos, cuando está con él yo no sé si está enfadado o no, pero lo que si veo es que la niña presencia la tensión que hay cuando viene o cuando tal. (...) hoy es el día, no quiere ir, me agarra de la*

coleta así (hace gesto agarrandose la coleta para explicar el comportamiento de su hija) y no quiere, y no quiere, y no quiere y no quiere. (...) Muchas veces se pone a llorar y se hace pis, tal cual, en el momento” ; “No quería ir con papa (...) empiezo a ver que la niña arrastra a las niñas de los pelos, bueno a las niñas no a las muñecas, a las muñecas de los pelos, las quita la ropa, ehh ... las mete en cuarto oscuro, las pega ... y demás.(...) No quería ir con papa, que papa le daba miedo. (...) papa le pegaba.” Bestalde, kasu batzuetan indarkeriazko ekintzen jakitun izateaz gain, biktimak ere izan dira: “Sale la valoración de la niña, la valoración sale que ha habido abusos sexuales.”

Seme-alabei jarraiki, elkarrizketatu baten kasuan, non emakumea emakumeen aurkako indarkeriaren biktima izan den eta bere alabak sexu-abusuak jasan dituen aitaren aldetik, alaba zentro tutelatu batean barneratu dute: “*Ha denunciado hasta la Fiscalía de menores y mi abogado al área del menor porque se han llevado a mi hija a un centro tutelado.*”

Zentro tutelatuan sartzeko arrazoia zera da: “*Lee parte de la Orden Foral: <<Tras el sometimiento de la información obrante en el expediente de la menor al instrumento para la valoración de la gravedad de las situaciones de desprotección, de riesgo y desamparo (BALORA) de las y los menores, se concluye que la menor Lia se encuentra en situación de desamparo por situaciones de gravedad muy elevada en la tipología de la desprotección de instrumentalización en conflictos de pareja y por una gravedad cuestión de abuso sexual y maltrato emocional.>> Cuando el maltrato emocional y el abuso sexual viene aquí (refiriéndose al informe emitido por el área del menor de Diputación) referido a que todo es el padre. (...) Esto lo firma (...) la Diputada Foral de Servicios Sociales, Vicepresidenta del Consejo del Menor de Álava (...) que es la coordinadora (del caso) de Diputación.*”

Hortaz, kasu batzuetan emakumeen aurkako indarkeria bikoteen arteko gatazka gisa kalifikatzen da eta lan honetan agerira atera den moduan, emakumeen aurkako indarkeria bikoteen arteko gatazka bat baino askoz ere konplexuagoa da. Ez da ahaztu behar kasu honetan adingabea familia-nukleotik atera dela adingabearen interesak babeste aldera, non ziurtatu den tratatu txarrak soilik aitaren aldetik jasotzen direla.

Hurrengo kasuan ikusten da nahiz eta biktimaren ingurune sozialak jakin delituzko jokabideak gauzatzen zirela, beste aldera begiratzea erabaki zen: “*La vecina (...) dijeron: “nos quedamos tranquilos porque vimos que no tenías ningún tipo de golpe”.*

Bestalde, indarkeria hainbat modutara burutu daitekeela argi utzi da lanean zehar eta ez dela soilik indarkeria fisikoa, baizik eta psikologikoa, ekonomikoa eta sexuala ere badela. Hortaz, emakumeen aurkako indarkeria ez du kolpe batek soilik definitzen.

VII. EZTABAIDA eta ONDORIOAK

Gaur egun, emakumeen aurkako indarkeria gizarte guztietan ematen den arazo soziala da; Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko Europako Parlamentuko Ebazpenak dioen moduan, muga geografiko, ekonomiko edo sozialik ez duena eta, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eragozten duen oztopo eta giza eskubideen urratze zabalduenetako bat.

Emakume izateagatik burutzen den indarkeria da. Izan ere, genero terminoak pisu handia du, nahiz eta generoa eraikuntza sozial bat izan espazio eta denbora zehatz batean, kulturaren arabera eraikitzen dena (Butler, 2007). Horregatik nahiago izaten da genero-indarkeria izendapena erabili beharrean, emakumeen aurkako indarkeria erabiltzea (Tubert, 2003).

Oraindik ere emakumeen aurkako indarkeria gai pribatutzat hartzen da, gai eta arazo pribatu guztiak eremu pribatuan ebatzi behar direla planteatuz; ikuspuntu horrek emakumeen aurkako indarkeria mantentzea lagundu du. Horren harira, kapital sozialari buruz hitz egiteko aukera ematen du.

Jane Jacobs-ek (1973) kapital sozialaren kontzeptua hiriaren bitartez definitzen du. Beraz, hiria osatzen duten elementu gizatiar eta arkitektoniko guztiek eratzen dute kapital soziala; hiria leku sozial bat da zeinetan pertsonak euren erlazioak dituzte hartu-eman eta elkarrizketen bitartez. Gizakien artean ematen diren harreman horiek sare bat osatzen dute eta sare horiek portaera bideratzen dute.

Honenbestez, Jacobs kapital sozialari buruz ari denean bizilagunen arteko sareari buruz ari da; kapital sozial hori espontaneo delarik eta orduan, hiriaren bake publikoa, jendeak indartzen duen sare-kontrolen bidez bermatzen da.

Putman-ek dio kapital sozial baxuak indibidualismoa bultzatzen duela, desberdintasuna, segurtasun pribatuaren gorakada eta gizartearen funtzionamendu orokorra galarazi, bai eta kriminalitatean txertatzearen arriskua areagotu. Indibidualismo horrek bizitza publikoa kalitate gutxiagokoa izatea suposatzen du eta aipatutako desberdintasun hori maila guztietan nabarmentzen da; hau da, soziala, ekonomikoa, kulturala... (Downes eta Rock, 2011).

Jacobs-ek (1973) ondorio hauek azpimarratzen ditu kapital soziala baxua denean: hiri handietan ezezagun gehiago daude ezagunak baino; jende gutxi ibiltzen den kale batek probabilitate gehiago du kale ez-seguru bat izateko eta alderantziz, eta segurtasun falta nabaria da.

Kapital sozialak eta segurtasunak lotura estua dute; kapital sozialak gora egiten duen heinean segurtasunak ere gora egiten du, eta alderantziz. Ondorioz, kapital sozialak beheraka egiten duenean probabilitate handiagoa dago delituak eta delituzko subkulturak nabarmenagoak izateko. Horrek, gizartean segurtasun falta sustatzen du eta jendearen arteko interakzioetan konfidantza-maila gutxitu egiten da. Aipatu beharra dago kapital sozialak behera egiten duen bitartean, kapital penalak gora egiten duela. Horregatik, garrantzitsua da bizilagunen arteko sare bat eraikitzea gizartea. Modu honetan, emakumeen aurkako indarkeria era pribatuan konpondu beharreko arazo gisa kalifikatzea ekidingo litzateke, eta indarkeria hori ezerezteko konpromezua areagotu gizarte osoan zehar.

Bestalde, emakumeen aurkako indarkeriak biktimengan duen inpaktua izugarria da, indarkeriazko ekintzek identitate fisikoa edo psikologikoa arriskuan jartzen dutenak baitira (Echeburúa, de Corral eta Amor, 2004). Kontuan hartu behar da biktimen seme-alabak ere indarkeriaren objektu izan daitezkeela, arazo fisikoa, asaldura emozional larriak, arazo kognitibo-konduktualak eraginez (Varona et al., 2015). Hala ere, ezin da hitz egin erasotzaile eta biktima edo biktimen tipo edo perfil zehatz batez; nahiz eta subjektu horietan hainbat ezaugarri amankomun antzeman daitezkeen.

Emakumeek jasaten duten indarkeriari aurre egiteko hainbat tresna daude Estatuan. Tresna zigortzaileena *ius puniendia* da, Zigor Kodearen bitartez gauzatzen dena; baina badaude ere arazo sozialari erantzuna emateko garatzen diren politika publikoak. Emakumeen aurkako indarkeria arazo sozial gisa definitzerakoan, politika publiko eraginkorrak garatzeko

ezinbestekoa dirudi genero-ikuspegia kontuan hartzen duten berdintasunerako planekin harremantzea. Gipuzkoa mailan, esangura berezia du Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak garatutako Aurre! Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko I. Foru Planak.

Garatzen diren politika publiko horiek ebaluazioen beharra dute euren eraginkortasuna eta ebaluagarritasuna ziurtatzeko, baita arazo sozialaren kaltetuak direnen beharrak asetzeko. Behar horiek asetzeko arazoa definitu beharko da, zerbitzuen beharren analisía egin eta azkenik, zerbitzuen behar, demanda eta erabileraren analisía (Casado, 2009).

Emakumeen testigantzek agerian uzten dute alde batetik indarkeriak duen izaera ziklikoa eta bestetik, emakumeen aurkako indarkeriari erantzuna emateko zerbitzuen esparruan dauden gabeziak. Ondorioztatzen da beraz, jasandako indarkeria progresiboa dela eta denbora pasa ahala intentsitate handiagoz ematen dela: indarkeria psikologikotik hasi eta hiltzen saiatzera iritsi arte.

Elkarrizketen analisía egin ondoren, ondorioztatzen da emakumeen aurkako indarkeria jasaten duten biktimek hainbat gabezia antzematen dituztela hainbat erakunde eta eragileen aldetik; azpimarragarrienetako bat genero-ikuspegiaren gabezia da. Ikuspegi hori ez izateak, emakumeen prozesua kaltetu eta oztopatzen duela argia da, bigarren mailako biktimizazioa eraginez. Era berean, zifra beltza areagotzea dakar inplizituki, askotan ez baita salaketa jartzearen alde egiten.

Garrantzitsua da kontuan hartzea, justizia-sisteman dagoen konfiantza eza, ez dira babestuak sentitzen; guztiz kontrakoa. Ez dira sinetsiak, salaketa hainbat onura lortzeko jartzen dutenaren sinesmenak... hortik dator salaketa faltsuen uste orokorra. Ez da ahaztu behar seme-alabek jasan dezaketen eta jasaten duten indarkeria, baita instrumentalizazioa ere.

Oraindik ere lan handia dago emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko, eta lan hori ikuspegi multidisziplinari eta interdisziplinari batean oinarrituta egon behar da.

VIII. GOMENDIOAK

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko garatzen diren politika publikoek garbi izan behar dute zein den fenomenoaren dimentsioa. Konponbidea behar duen arazoan esku-hartzeko erabaki-multzo bat hartu beharra dago, erabaki horiek arrazoizkoak eta programatuak izan behar dutelarik: balio, xede, helburu, jarduera-neurri eta epe motzera, ertainera edota luzerako baliabideen hautaketa. Bestalde, lanean zehar aipatutako “Politika publikoen zikloa” jarraitzea gomendatzen da, politika publiko bat ondo garatua eta eraginkorra izan dadin.

Eraginkorra den edo ez aztertzeko, beharrezkoa da ebaluazioa egitea; ebaluagarritasunaren kontzeptua aztertzea, ikusteko ea politiko publikoa ebaluagarria den. Politika ebaluagarri den jakiteko, hainbat aspektu hartu behar dira kontuan (ikus Eranskina IV).

1. Gomendioa

Politika publiko bat diseinatzerako orduan helburu zehatzak eta neurgarriak garatzea eta baliabide eta hainbat jarduera-multzo deiseinatzea, esku-hartze modelo bat sortu eta helburu zehatz eta neurgarri horiek lortu ahal izateko. Era berean, arazo soziala ahal den modu zehatzenean definitu; kontzeptu eta izendapen desberdinek sorturiko nahastea ekiditeko.

Politika publikoak hobetze aldera, beharren ebaluazioak egin behar dira; izan ere, ebaluazio-mota hau arazoaren analisisan ardazteaz gain, aldaketak sortzeko beharrezko zerbitzuak balioesten saiatzen da. Beharren ebaluazioa bat egin ondoren, aztertuko da zeintzuk diren emakumeen aurkako indarkeria jasaten duten biktimen gabeziak eta gabezia horiei erantzuna emango zaie.

2. Gomendioa

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta emateko eskaintzen diren zerbitzuen erabiltzaileei eta bertan esku-hartzen duten profesionali, asetze-maila ezagutzeko mekanismoak implementatzea.

3. Gomendia

Asetze-mailaren ebaluazioa egin ondoren, arreta soziojuridikoko zerbitzua, arreta psikosozialeko zerbitzua eta harrera eta esku-hartze psikosozialeko zerbitzuak hobetzea; emakumeen beharrei behar bezala erantzuteko.

4. Gomendia

Emakumeei ematen zaien aholkularitza juridikoa integrala izan behar da, ezinbestekoa delarik zuzenbidearen edozein alorrak eskaintzen dituen baliabideak aztertzea.

5. Gomendia

Emakumeen aurkako indarkeria jasaten duten biktimei arreta-zerbitzu egokia emateko baliabideak bermatzea era iraunkor eta egonkorrean; horretarako beharrezkoak diren baliabide material eta giza-baliabideez dohatuz.

Arazo sozial hau erradikatzen ahaleginak jartzen dituzten profesional desberdinen arteko koordinazioa beharrezkoa da; hala nola, emakumearen psikologoa edo gizarte-langilea bere abokatuarekin, hartara erlazio bortitzaren alderdi batzuk ulertzen lagun diezaiokete abokatuari eta esku-hartze hobe bat aurrera eramaten. Gainera, profesionalen arteko koordinazioak esku-hartze hori hobeezina eta kalitatezkoa izaten lagunduko luke. Era berean, profesional desberdinek emakumearen egoera desberdinak ezagutzeko (judiziala, psikologikoa...) aukera izango lukete, osotasunezko esku-hartzea eskainiz.

6. Gomendia

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jardunean dauden profesionalak genero-ikuspegian formakuntza izatea; horrela, justizia-sisteman genero-ikuspegitik lan egitea beharrezkoa da.

7. Gomendia

Profesionalen arteko koordinazioa multidisziplinarra eta interdisziplinarra izatea. Era berean, ezagutzen trukea laguntzeko.

8. Gomendia

Erakunde desberdinak nahastea, profesional desberdinak eremu berdinean lan egin dezatela eskatzeko. Baita erakundeen arteko koordinazioa bultzatzea, asmo-handiko formakuntzak egiteko.

9. Gomendia

Biktimen kolektibo desberdinekin kontaktzea koordinatzeko orduan.

Ezagutza tekniko-juridikoak ez dira nahikoak emakumeen aurkako indarkeriaren biktima direnekin esku-hartzerakoan. Beharrezkoa da emakume hauek bizitzen duten prozesua eta egoera kognitibo-emozionala ulertzea salaketa jartzea erabakitzen den unean, bai eta prozesu judizialei dagokionez izaten diren zalantza eta beldurrak argitzea; hauek salaketa ez jartzearen arrazoi pisutsua izan daitekeelako.

10. Gomendia

Erakunde bakoitzean Formakuntza Planak garatzea urtero, eremu bakoitzean formakuntzaren beharrak jasotzeko, non Formakuntza Planen diseinuak behar horiei erantzun behar dien.

11. Gomendia

Formakuntza profesionalei soilik ez hedatzea, baizik eta pertsonal politiko eta zerbitzuen kudeaketarako pertsonalari, kasu bakoitzean egoki iruditzen den sakontze maila kontuan hartuz.

12. Gomendia

Emakumeen aurkako indarkeriaren eta berdintasunaren gaineko ezagutza duten profesionalak barneratzea.

13. Gomendia

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei ematen zaien zerbitzuen harira, behin zerbitzua bukatutakoan, emakumeen jarraipena egitea.

IX. LABURPEN EXEKUTIBOA

Gaur egun gizartean dagoen arazo nabarienetariko bat emakumeen aurkako indarkeria da; indarkeria hau delarik emakumeek gizonekiko duten desberdintasun, mendekotasun eta botere-harremanen adierazpen argiena. Datuen arabera, eraildako emakumezkoen kopurua azken 15 urteetan ia 1000koa da.

Indarkeria horrek, berekin dakar diskriminazioaren nozioa. Ildo horretan, Emakumearen Munduko Hirugarren Konferentziaren arabera, emakumeen aurkako indarkeria diskriminazio modu bat da zeinak emakumeari eskubideez eta askatasunez gozatzea galarazten dion (19. Gomendio Orokorra). Ondorioz, emakumeen aurkako indarkeria oztopo bat da berdintasunaren, garapenaren eta bakearen helburuak lortzeko.

